

- EZTABAIDARAKO TXOSTENA -

FASE POLITIKOAREN ETA ESTRATEGIAREN ARGIPENA

CLARIFICANDO LA FASE POLÍTICA Y LA ESTRATEGIA



elebidunez

Aurkibidea

0. Sar hitza	5
1. Askapen prozesuaren ibilbide politikoa	6
2. Egungo abagunearen ezaugarri nagusiak	11
2.1. Mundua	11
2.2. Estatuak	13
2.2.1. Frantziar Estatua	13
2.2.2. Espainiar Estatua	13
2.3. Euskal Herria	14
3. Fase politikoaren ezaugarritzea	16
4. Estrategia independentista	17
4.1. Erreferentzia estrategikoa	17
4.2. Erreferentzia taktikoa	18
4.3. Nazio eraikuntza	18
4.4. Ezkerreko borroka	20
4.5. Nazio estrategia	21
5. Prozesu demokratikoa, aldaketa politikorako gakoa	22
5.1. Prozesu demokratikoaren ezaugarritzea	22
5.2. Prozesu demokratikoaren lanabesak	23
5.2.1 Ezker Abertzalearen berregituraketa	23
5.2.2 Aliantza politika: indar independentistak bildu	26
5.2.3 Erantzun dinamika: herri harresia eraiki	26
5.2.4 Negoziazio frontea	28
6. Apustua gauzatzeko urratsak	30

**FASE POLITIKOAREN ETA ESTRATEGIAREN ARGIPENA
EZTABAIDARAKO TXOSTENA**

0. SAR HITZA

Ezker Abertzaleak behar bat du une honetan: fase politikoaren eta estrategia independentistaren argipena egitea, horren araberrako ildo politiko eraginkorra jorratu ahal izateko. Nondik gatozen eta non gauden hausnartzuz, nora eta nola goazen zehaztea. Izan ere, azken hamarkadako ibilbidea, azken negoziazio prozesua edota gaur egungo abagunea kontuan hartu gabe osa litezkeen ikuspuntu, ekimen edota jarduerak nora eza baitute arrisku. Hutsean eraikitakoak inprobisazioa eta boluntarismoa ditu ondorio.

Txosten honek azken urtetan askapen prozesuaren ibilbide politikoaz nahiz abaguneaz egindako irakurketak ditu abiapuntu. Horiek beste behin ere gogoratzea egokia ikusi dugu, txostenaren mamia hobeto ulertuko delakoan. Norabide berean, ibilbide politikoaz egindako gogoe-tan ikuspegi ezberdinak txertatzea egokia ikusi dugu, ez batzuk onetsi eta besteak ezesteko, ez norabide batean edo bestean katedra ezartzeko, aurrera begirako estrategia eta ildo politikoa zehazterakoan ahalik eta ikuspegi zabalenaren eta aberatsenaren jabe izateko baizik.

Zentzu horretan, gaur egun bizi dugun egoera azken hogeita hamar urteotan-lortutako garaipen nagusi baten ondorio dela nabarmendu behar dugu: Francoren osteko erreforma eta hortik eratorritako amaraun juridikoa eta politikoa (Euskal Herria irenstea eta asimilatzea helburu

zuen) ez dute egonkortzea lortu, eta beraz, sakoneko aldaketa demokratikoaren aukerari eutsi diogu. Eutsi bakarrik ez, marraztu ere marraztu egin baikenuen, hutsuneak hutsune eta akatsak akats, azken negoziazio prozesuan. Halaber, hamarkadotan, konponbide demokratikoaren osagaiak jendarteratzea lortu dugu.

Guztiarekin, **Euskal Herria aldaketa politikoaren atarira ekarri dugu**. 30 urte geroago, **aldaketaren atea zabal-zabalik da**. Hori da egin beharreko lehen azterketa, azterketa baikorra, nahiz eta jakin, ondo baino hobeto jakin ere, egindako bidea gogorra izan dela eta egungo egoera errepresiboa oso latza dela. **Hamarkadotako borrokaren bidez zabaldutako ate hori zeharkatu eta aldaketa politikoa gauzatzea da orain erronka**. **Badago horretarako nahikoa baldintza**. **Baldintza horiek aldaketa politikoa gauzatu eta Euskal Estatuaren eraikuntza faseari ekitea ahalbideratuko duten indar metaketan eta indar-harremanetan bihurtzean datza gakoa; konfrontazioa Euskal Herria/Estatuak terminoetara eramango duen estrategia eraginkorra zehaztean.**

Horixe da, izan ere, **txosten honen helburua: fase politikoa argitu, aldaketa politikoa gauzatzeko estrategia eraginkorra diseinatu eta askapen prozesuan urrats erabakigarri bat egitea.**

1. ASKAPEN PRO- ZESUAREN IBILBIDE POLITIKOA

1.1. ESTRATEGIA BATEN AGORPE- NA ETA 94ko HAUSNARKETA

70eko hamarkadaren amaieran, Espainiako erreformaren bidez, Estatuaren proiektua sendotzeko urrats garrantzitsuak eman zituzten: nazioarteko egituretan integrazioa, egitura ekonomikoaren moldaketa eta Estatuaren birkokapena LOAPAren bidez, besteak beste. Helburu bat, ordea, ezin izan zuten lortu: Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren neutralizazioa. Garai hartan negoziazio estrategia bideratu zuen ezker independentistak, ondoko osagai hauek zituena: Estatuarekin enfrontamendu zuzenean presioa eragitea, negoziazio mahaiari esertzeko eta KAS Alternatibaren ezarpena adosteko.

Erresistentzia fase hark erreforma garaitu zuen, baita askapen mugimendua deuseztatzeko ahaleginak ere; porrot egindako damutze politika, ZEN Plana edo GALen gerra zikina gogoratzea besterik ez dago. Aljerko elkarrizketa politikoetan negoziazioaren beharra egiaztatu zen, baita Ezker Abertzalea (ETA, zehazkiago) ezinbesteko mintzakide zela ere. Urteak pasa ahala ahaztu bada ere, elkarrizketa haiek zirela-eta egindako lanak aurrerapenik eskaini zuen negoziazio prozesu baten izaera eta faseak ezaugarritzeko lanean, baita marko aldaketarako igarobi-deak zehazteko edota estrategia politikomilitarraren egokipenen beharraz jabetzeko orduan ere.

Estrategia horren agorpen zantzuak halaxe agertu ziren: erakundearekiko menpekotasun politikoa/estrategikoa (ETA eta indar okupatzaileen artekoa zen borroka nagusia, gizarteak harmailetatik ikusten zuena); borroka moldeen ezinbesteko osagarritasunetik menpekotasunera iritsi ginen; eta estatuak inposaturiko lurralde zatiketaren arabera jokatzen genuen, nazio estrategiarik erdietsi ezinik eta, zehazki, Frantziako Estatuari begirako indar harreman egokirik egituratu gabe (Ipar Euskal Herrian Ezker Abertzalea zatitua zen, IK-ren gainbehera garaia iritsi zen eta Paris gatazka itxuragabetzeko eta ezkutatzeke asmoarekin sasi-proposamenak egiten

hasi zen). 92ko Bidarteko erorketak jarri zion estrategia hari amaiera data. Aljerko elkarrizketen ondotik borroka armatuaren baliabidea lehenetsi zen: preseski, data horretan izan beharreko ekitaldi handiak (Bartzelonako Joko Olinpikoak eta Sevillako "Expo"-a) zirela-eta, PSOEko Gobernu behartzeko aukera izan zezakeelakoan. Karta bakarrek eskemak porrot egin zuen orduan ere.

Agorpen zantzuak izan baziren, bistan zen, eta **94tik aurrera hausnarketa eta birmoldaketa garaia** izango da. Eraikuntza nazionalaren strategiari ekingo zaio, aldaketaren egunaren zain egon beharrean, eguneroko lanari garrantzia emateko. Horrek ez du esan nahi aurreko aldiari nazio eraikuntzarik egin ez zenik. Aldaketaren zentzua nazio eraikuntzari eman nahi izan zitzaion dimentsio politikoan datza. **92 bitartean garatu genuen eredia ordezkatzekoan, jokaleku estrategikoa zabaldu genuen.** Estatuarekin gatazka eremu bakarrean garatu beharrean, eremuak ugaritzeko apustua egin genuen.

Euskal gizartean adostu beharrekoa eta Estatuarekin hitzartu beharrekoa bereizteak eta nazio eraikuntzak dimentsio berriak eman zitzioten strategiari.

Aipatu bereizketarekin (Estatuekin hitzartu beharrekoa eta Euskal Herrian bertan adostu beharrekoa), Alternatiba Demokratikoa kaleratuko da. Gatazkaren konponketarako oinarriak jarriko ditu eta, bueltan-bueltan, oinarri horiek behin eta berriz agertuko dira urteotan. KAS Alternatibaren eguneratzea izan zen Alternatiba Demokratikoa; era berean, Anoetako Proposamena azken horren eguneratzea izan da.

Kaleko mobilizazioak eta borroka indar handia hartu zuen garai hartan, "Euskal Herria askatu" moduko ekimenekin. **Inposaturiko marko juridiko-politikoari aurre egiteko eta aldaketaren aukera irekitzeko beharrezko indarra eskaini zuen borroka.** Urte horietan eman zen gatazkaren areagotzea ez zen Ezker Abertzalearen hautua soilik.

"*Demócratas/violentos*" dikotomiari eutsiz eraso bortitza egin zuten etsaiek eta haren laguntzaileek, eta kriminalizatzeko kanpainak ere bultzatu zituzten. Gerora PPren bidez etorriko zen erasoaldiari oinarri teorikoak jarri zuten hasi ziren.

Eutsi ez ezik oldartu ere egin zen Ezker

Abertzalea helburu politikoak eskuratzeko egoerara iritsi ahal izateko. Ezinbestean, kale dinamika azkarra bultzatu beharra zegoen, jasotzeko lehenik erein beharra baitzegoen. Ezin ahortzi, haatik, borroka ikuspuntua okertzeko eta desbideratzeko arriskua ere izan zela, "sufrikarioaren gizarteratzea" moduko formulazioekin edota ekinbide politikoa mespretxatzeko joerekin. Izan ere, lan politikoa gutxietsi (tarteko helburuak lortzeak ez du garrantzirik) eta aktibismo hutsa (helbururik gabeko borroka) hobesteko joera beti izan da arrisku. Halere, arazoak arazo, emaitza txukunak eman zituzten urte haiek. Euskal Herri osoan Ezker Abertzaleak osasuna hartu zuen, baita ate joka ziren erronka politiko garrantzitsuei aurre egiteko ere. Ipar Euskal Herrian egindako urratsak ere garapen horren erakusgarri dira: barreatutako indarren berrantolaketa bultzatu genuen (ABren sorrera, Gazteriak, Koordinaketa...), Ezker Abertzaleko taldeen arteko harremanak landu genituen (AB, EB, HB, HA), eta jendarte lana eta mobilizazio azkarrak garatu genituen (hauteskundeak, intsumisioa, ofizialtasuna, euskal departamendua...).

Azpimarratzekoa da ere marko autonomikoari eragindako higadura. LABek indar harremanak aldatzeko ELAekin egindako lana dugu aldagai nagusietako bat. **1997an, ELAK "Estatutua hil da" adierazi zuelarik estatutismoari kolpea emateaz gain, ezker abertzaleak markatutako tesia babestu eta elikatu zuen.**

Horrek ez du esan nahi bidea erraza izan zenik, ezta gutxiagorik ere. **Estatuek ere aizkora zorrotzu zuten**, bereziki Espainiako Estatuak. Alternatiba Demokratikoa plazaratzeko dinamikari erantzunez, 97/98an Mahai Nazionalaren kontra jo zuen. Garai hartan **Ezker Abertzaleak ez zuen behar bezala aztertu urrats haren** (ondorengo erabateko lege kanporatzearen lehen kapitulua) **sakontasuna**. Unean uneko afera baino harago, Ezker Abertzalearen estrategia erditik zapuzteko apustuaren hasiera izan zen.

Nazio askapenerako estrategia politiko-militarrak borroka armatua, masa borroka eta borroka instituzionala biltzen bazituen, ordu-ra arteko erantzuna (borroka armatua deuseztatu eta beste borroka motak legalitatean integratzen saiatu) alboratu, eta masa borroka eta borroka instituzionala blokeatzeko hautua egin zuen. Horrela ez zen estrategia politiko-militarrik izango, ez borroka armatua-

rekin amaitzea lortuko zuelako, arlo politikoa indargabetuko zuelako baizik.

1.2. 98ko EKIMENA ETA LIZARRA-GARAZIKO HITZARMENA

98ko ETAren ekimenak eta Lizarra-Garaziko Hitzarmenak sorturiko aldi politikoa lau urte lehenago hasitako bidean **inflexio puntu gardena** izan zen. Ondorio positiboak eza-gunak ditugu:

- **Ezker Abertzalearen potentzialitatea** argi eta garbi agertu zen.
- **Euskal Herria eta Estatuaren arteko konfrontazioa sakondu egin zen.** Euskal Herriak bere bidea behar zuela gizarteratu zen.
- **Marko politikoaren baliorik eza nabarmendu zen.**
- Gatazkaren oinarrien eta askatu beharreko korapiloen argipena egin zen, eta **konponbide demokratikoaren alde inoiz gauzatu-tako adostasunik handiena lortu zen** (Lizarra-Garaziko Hitzarmena).
- **Aldaketa politikoaren beharra azkartu zen.**
- **Nazio eraikuntzan eta egituratzean urrats garrantzitsuak** (Udalbiltza) egin ziren, eta, eskuarki, Euskal Herriaren mapa, zatiketaren gainetik, inoiz ez bezala marraztu zen.

Arazoak ere ez ziren makalak izan. Alde batetik, **ekimen haren guztiaren esanahiari buruz ez baitzen irakurketa nahikoa bateratua lortu**, ezta Ezker Abertzalearen barruan ere. "Bake prozesua" ote zen, "eraikuntza prozesua" behar zuela izan... Edonola ere, **arazorik handiena bidaide izan behar zuen EAJren jokabidea** izan zen, ez baitzuen hitzartutako norabidea hartu nahi izan, sorzitekeen egoeraren beldur beste behin ere. **PNVk hegemonia arriskuan ikusi zuen.** Ez genuke ahortzi behar Ezker Abertzaleak lortutako boz maila. Jelkideek ez dute ahaztu.

Hala ere, ez genuen PNVri hegemonia hori kentzeko apustua lehenetsi eta prozesua beste bide batetik eramateko hautua egin. Azken batean, Lizarra-Garazi inflexio puntua izan zen askapen prozesuan eta horrek, hala erabakiz gero, Ezker Abertzaleari indar

harremanen aldaketarako fasea irekitzea ere ahalbidetzen zion, horrek borroka armatuaren zikloa gaindituzat jotzea eskatu arren.

Alabaina, berez PNV-EArekin sinatutako akordioan oinarritutako prozesuak beste eskema bat zuen: Euskal Herria aintzat hartzen zuten indarren artean burujabetzaren bidean urratsak egitea, marko zatikatzailea horrela gainditzien saiatzea eta Estatuaren itxikeriari elkarrekin aurre egitea. Aldi berean, Lizarra-Garaziko Hitzarmenak gatazkaren konponbiderako oinarriak finkatu zituen, kasu askotan abertzaleen arteko frontearen itxura hartu bazuen ere herritarren aurrean.

Burujabetza prozesuan aurrera egiteko, 99ko udan, PNVri eta EAri akordio berri baten aukera mahai gaineratu zitzairen. Ez zen adostasunik erdietsi (haiek oso azkar joatea leporatu ziguten eta guk, ez zutela beharrezko norabidean segi nahi erantzun genien) eta, egoera ustel zitekeelakoan, ETAK su-etena amaitutzat jo zuen.

Hauturaren faktura guk ordaindu genuen, ondo ordaindu ere, eta PNVk zentralidade osoa ("Jesukristoren moduan, bi lapurren erdian" zeudela esan zuen Xabier Arzalluzek, alde batean PP eta bestean Ezker Abertzalea kokatuz) **hartzeko aukeraz probetxu atera zuen**. Egia hauxe da: ETAK EAJrekin eta EArekin sinatutako akordioa ezerezean geratu ostean, marko autonomikoa lurperatzeko eta jelkideen etorkizuneko apustua (bidegurutzean zeudela genion) baldintzatzeko Ezker Abertzalearen ildoak ez zuen arrakastarik izan, 2001eko EAeko hauteskundeek argi eta garbi erakutsi zuten.

Borroka armatuak garai hartan jokaturako funtzioaren inguruan orain arte egin ez diren bi aipamen egiteak mereziko luke: lehena, su-etenen abiatze eta esanahiari dagokio; bigarrena, amaierari. Izan ere, halako su-eten mugagabea egin izanak sakoneko esanahia zuen nazio askapenerako mugimenduaren ibilbideari erreparatuz gero. Nolabait, ordura arte, gure oinarri sozialak ondoko axioma zuen barneratuta: gutxieneko eskubide-aitortza izan arte, borroka armatuak berean segituko zuela. Abertzaleen batasuna lortze aldera alde aurreko su-etenen aukera Xibertan ere mahai gaineratu zen, baina kontu haiek aspaldikoak ziren eta ez zuten ondoko belaunaldietan arrastorik utzi. Beraz, su-eten mugagabea abiapuntuan jarri izanak borroka armatua nolabait erlatibizatu zuen herrita-

ren begietara. Hau da, hautua ere bazen, ez ezinbesteko betebeharra.

Bigarren faktorea su-etenen amaierarekin etorri zen: ETAK oso ekintza armatu garrantzitsuak egin zituen, sekulako astinaldia eragin zuten, baina ez zuten osagarritasun politikorik izan, ez behar beste, behintzat. Zertara gindoazen ulergaitza egin zitzaion Ezker Abertzalearen oinarri sozialari.

1.3. ILEGALIZAZIOARI AURRE EGIN ETA ANOETAKO PROPOSAMENA AURKEZTU

Horiek horrela, 2001ean krisia azalera zuen. Ondoren, Ezker Abertzaleak ondo erantzun zuen. Ezker abertzaleak eutsi egin zion eta, Lizarra-Garaziko ondoko faseari birtualtasuna eta garapena emanaz, Espainiako Konstituzioak ezarritako eredu politiko-juridikoaren krisia sakondu zuen eta, aldi berean, nazio aitortzan eta herri borondatean oinarrituriko aldaketa politikoaren aldarria indartzeari ekin zion. Horrek ondorioak izan zituen Espainiako Estatuako lurralde ereduari buruzko eztabaidan eta eztabaida hori beste leku batzuetara zabaldu zen. Katalunia da adibiderik argiena.

"Hausnartzen" barne gogoeta-argipena eginenez eta etorkizuneko ekimen politikoa prestatuz egin zion aurre egoerari Ezker Abertzaleak. Ordurako, hurrengo prozesua, edozein zela ere, beste moduko prozesu bat izango zela begi bistakoa zen askorentzat, eta zenbait egituretan Alternatiba Demokratikoa eguneratzeko –betiere, haren mamiari eutsita– ariketa (ondoren "Orain Herria-Orain Bakea" erdietsiko zuena) martxan jarri behar zela ondorioztatu zen. Testuinguru hartan jarri zen martxan Nazio Eztabaidaren ekimena, baita negoziazio frontea aktibatzeke urratsak ere.

Horretarako, egoera ez zen samurra. PPko Gobernuak Ezker Abertzalea zokoratzeko estrategia judiziala eta poliziala berrindartu zuen, mugimendu independentista eraitsi ahal izango zuelakoan. Ekin, Zumalabe, Jarraila-Haika-Segi, Askatasuna, Udalbiltza, Egunkaria... Errepresioak kolpe psikologikoak bilatu zituen, epe luzerako antolakuntzarako gaitasuna eta konfiantza sakonki kaltetzeko asmoz. Horien ostean, Irailaren 11ko gertakarien harira mundu mailan izandako eskubideen

murrizketari ere probetxu atera zion urrats nagusia egiteko: Herri Batasuna/Euskal Herriarrok/Batasunaren legez kanporatzea eta, bide batez, Ezker Abertzalea hauteskunderetatik eta erakundeetatik kanporatzea.

Egoera horretan Batasuna prozesuak ez zituen askatu beharreko indar guztiak askatu (Aralarren eta ABren zatiketak gertatu ziren). Okerrena, dena dela, etorkizuneko Herritar Batasuna marraztu behar zuen prozesu hartatik ez ginela indarturik irten izan zen.

Halere, errepresioa gogorra izanagatik, ez ginen zokoratzeko eta ezkutatzeo tentaldian erori; ez ginen bide horretatik galdu. Barne kohesioa indartu eta gero, ekimen politikoa azkartu genuen eta besteren artean, 2003ko hauteskunderiek, Ezker Abertzaleak erasoaldiari eutsi ziola erakutsi zuten.

2004ko martxoaren 11n Madrilen izandako eraso islamistek PPren gainbehera eragin zuten. Orduan ere, Ezker Abertzalea deuseztatzeko ahaleginean tematu zen eta hori bere galbidea izan zen. Espainiako hauteskunde orokorretan, ezustean, PSOEek irabazi zuen.

Ordura arte eginiko lanari etekin handiagoa ateratzeko eta prozesu demokratikoa martxan jartzeko aukera eskaini zuen egoera berriak. Ezagunak dira testuinguru hartan eragina izan zuten faktoreak eta urte haietan izandako gertaera nagusiak: Nazio Eztabaidagunetik abiatuta lorturiko indar metaketa, Ezker Abertzaleak suntsitze saiakerari aurre egin izana, Anoetako proposamena, gatazkaren konponketarako ETaren adierazpena, PSOEekin eta Espainiako Gobernuarekin hasitako harremanak, nazioarteko eragileen inplikazioa, Ibarretxeren Planari emandako erantzun egokia (PNVk ez du harez gero burua altxa), EHAKk hauteskunderetan lorturiko emaitza onak, Ipar Euskal Herrian ABren zatiketak eragindako kalteak gainditzeko eta ekimen politikoa azkartzeko egindako urrats garrantzitsuak, ETAk eta Espainiako Gobernuak sinatutako akordioa... Horrenbestez, 2006ko martxoan su-eten iraunkorra adierazi zuen ETAk, aipatu akordioan adostutakoa betez.

1.4. 2005-2007 NEGOZIAZIO SAIOA ETA ONDOKO ALDIA

Jakina, une hartako faktore guztiak ez ziren

positiboak eta askok susmo txarra eragiten zuten. Ezin ahantzi presoan biziarteko kartzela aldia ezartzeko ekimena orduan gartu zela, kartzela politikak beste bi presoaren heriotza eragin zuen bitartean. Ezin ahantzi Espainiako Entzutegi Nazionalak Ezker Abertzalearen ekimena galarazteko jokabidea indarberitu zuela ere, noiz eta su-etena ezarri behar zenean.

Baina bazen are kezka handiagoa sortu behar zuen faktorea: prozesu horretan ere, **Ezker Abertzalearen barne kohesioa ez zen, abiapuntuan, behar bestekoa izan.** Prozesua bera nola ulertu behar zen argitzeo ikuspuntu ezberdinak zeuden. Batzuen ustez, su-etena presaka eman zen, eragile politikoen artean akordio politikoa lortzeko bidea argitu gabe eta, horrenbestez, prozesua zehaztu behar zuen osagai nagusia airean utzita, etsaiaren gogoaren edota egitasmoaren eskuetan. Hori gutxi balitz, Gobernuak hasierahasieratik bermeak ez betetzeak mesfidantza areagotu zuen. Beste batzuentzat berriz, suetenak behin betiko izaera behar zuen izan eta prozesua elikatu beharra zegoen, blokeo egoeratan trabaturik geratu gabe. Ikuspuntu horren arabera, prozesuaren garapena ETaren eta borroka armatuaren aitzindarritza faktikoan oinarritu beharrean, jendartearen protagonismoa eta Batasunaren lidergoia indartu behar ziren. Aitortu behar da, haatik, herri aktibazioa bideratzeko ere ez zela behar besteko urratsik egin. Dena den, bigarren ikuspuntu horren arabera, negoziazioaren faseak eta konpromisoak modu mekanikoan ulertu ziren eta unean uneko emaitzak eta prozesuaren orokortasunarenak neurtzeko modu desegokia gailendu zen.

Beraz, kohesio falta hiru eremu hauetan gartatu zen: askapen prozesuaren fasearen zehaztapenean, negoziazio prozesuaren ezagarritzean eta borroka armatuaren funtzioa ulertzerakoan. Beharbada, 30 urteotan Estatuak saiaturako asimilazio eredu indargabetzetik lortutako garaipenak eta negoziazio prozesu bat ireki izanak izaera estrategikoko gogoeta eskatzen zuten. Ez zen egin eta horrek irakurketa kontraesankorrak eragin zituen, prozesua bera are ezegonkorrago bilakatu.

Arazoak arazo eta kontraesanak kontraesan, irizpideak bateratzeko ahalegina handia egin zen, eta horren haritik prozesuaren izaera politikoa indarrak jartzea lehenetsi zen. Ikuspuntu ezberdinak izan arren, gatazkaren

gako nagusiak askatuko lituzkeen aterabide politikoa izan zen une oro mahai(en) gainean. Horixe da horretan guztian **lortutako altxorrik preziatuena: gatazkaren mamia identifikatu ez ezik** (hori egina genuen Lizarra-Garaziko garaian), **aterabide demokratikorako formulazio zehatzaren inguruan jarri genituen gainerako eragileak** ere, bai Loiolan, bai 2007ko maiatzeko azken saioan. Bidearen zati handia egin genuen, nahiz eta onartu behar dugun azken fase horretan ez genuela egindako lanaren inguruan herri mugimendu nahikorik sortu. Adibidez, Nazio Eztabaidagunearen ekimenez Oinarritzko Hitzarmen Demokratikoaren inguruan egindako indar metaketari ez genion begiratu ere egin.

Aurrerapen handiak eginda ere, zoritxarrez, PSOEk ez zuen hautua egin nahi izan; besteak beste, kultura demokratiko faltagatik (egiturazko arazo hori du Espainiako Estatuak) eta presio egingo zion indar harreman nahikorik sortu ez genuelako. Prozesuaren arlo "teknikoa" (ETA indargabetzea) zen harentzat lehenetsia, normala ere badena, bestalde. Afera da, ETArekin 2005ean sinatutako akordiotik ondoriozta zitekeenaren kontra, bere helburua lortzeko ez zuela marko demokratikorako bidea onartu nahi izan.

Lorpen nagusienak zerrendatzeko orduan honako hauek aipatu beharko genituzke:

- **Prozesuaren izaera politikoa.** Hor koka-tzen dira ETArekin eta Gobernuaren arteko abiapuntuzko akordioaren eduki politikoak eta ondorengo elkarrizketetan (Loiola eta maiatzeko saioa) izandako eztabaidaren jitea. Esan bezala, gatazkaren mami politikoa identifikatu zen eta irtenbideari zehaztasuna eman zitzaion, baita jendearen aurrean ere, Anaitasunan egindako ekitaldian. Horrenbestez, gatazkaren konponketa politikoa eta negoziazio bidezkoa behar duela izan indartu zen.

- **Euskal Herriko borroka nazioartera iritsi da** eta hori aktibo bat izan liteke etorkizunean ere. Halere, agian ez gara behar adina jabetzen horrek dituen ondorioez. Nazioarteratze maila bat lortzeak betebeharrak dakartza berarekin. Egiten den guztiak du, onerako edo txarrerako, eragina nazioarteko esparruan eta hausturatik aurrera izandako nora ezak ez du legitimazioak eta irabazitako esparruak behar bezala zaintzeko aukerarik eman.

- **Prozesuak aurrera egin ez izanaren ar-**

dura, maila handi batean, Gobernuaren bizkar gainean erori zen lehen hilabetee-tan, denborak aurrera egin ahala egoera hori aldatzen joan den arren. Zentzu horretan, PSEk eta PSNk azken hauteskundeetan lortutako emaitzak aski argigarriak dira ulertzeko euskal jendarteak ez dituela apurketaren arduradun egin eta aldiz, beren ahalegin negoziatzailea saritu duela.

- **PNVren erantzukizuna,** Espainiako Gobernuarekin lerrotzeagatik, **nabarmen gelditu zen.** Ondoren, Ibarretxek bideratu nahi izan zuen ekimenaren porrotak (prozesuan erabilitako mami batzuekin herri galdeketa proposatzea) alderdiaren jokabide ustela agerian utzi zuen berriro ere.

Su-etenaren amaierari dagokionez, askoren buruan jira eta buelta ibili da irteteko orduan ere sartzekoan batzuek ikusitako presa bera ez ote zen izan. Ofentsiba politikoa baitzen hobetsi beharrekoa. Amaieran ere ikusmolde ezberdinak azaldu ziren prozesua, negoziazio-eredua eta beren bermeak ulertzerakoan. Batzuentzat, berme nagusia borroka armatua zen; beste batzuentzat, aldiz, etorkizunean, berme bakarra herri aktibazioan eta indar metaketan bilatu beharra zegoen. Beraz, **prozesuaren apurketa aztertzerakoan, gure barnean izandako kohesio falta ere oso kontuan hartu behar da.**

Negoziazioen hausturaren ostean, Ezker Abertzalea prozesuan finkatutako oinarrietan indarra egiten saiatu zen (Anaitasunako proposamena hedatzea eta Loiolan eztabaidatutakoa zabaltzea izan ziren finkatutako eginbeharrak), konfrontazio zikloa prozesuaren logikaren arabera kokatu nahian. Bestalde, Estatuaren basakeriak (Ezker Abertzalea deuseztatzeko urratsak inork uste baino lehenago azkartuz) euskal herritarren aurrean haren borondate ustela agerian utzi zuen. Hori guztia dela-eta, 2008ko martxoko hauteskundeetan emaitza txukunak lortu zituen Ezker Abertzaleak –abstentzioari lotu zitzaion bere oinarri soziala Espainiako Hauteskunde Orokorretan, eta Euskal Herria Baik abertzaletasunaren marka guztiak gainditu zituen kantonamendu eta herriko etxeetako hauteskundeetan– eta, erantzun ildoan, greba eta mobilizazio egun arrakastatsua antolatu zuen.

Halere, **gure burua engainatuko genuke, haustura horren ondotik, izan bagenituen egiturazko arazoak azalarazi direla onar-**

tuko ez bagenu. Egoera berrira egokitzeko zailtasunak edota errepresioak zuzendaritza egiturei eragindako kalteak gorabehera, horiek guztiak oso garrantzitsuak izanda ere, bistan da irekitako konfrontazio zikloan Ezker Abertzalearen egiturazko arazo guztiak azaleratu direla. **Fase eta apustu politikoaren gainean aspalditik datorren argitasun eta kohesio falta izan dugu,** ohi denez, zirt edo zart egin behar den uneetan areagotu dena, **gure burua trabatzeraino.**

Hala, sakoneko aldaketa politikoa egiteko baldintzarik ez zegoelakoan eta beraz, prozesu demokratikoa berreraikitzea edota berri bat martxan jartzea ezinezkoa zelakoan, Ezker Abertzalea konfrontazio fase luze batera kondenatuta zegoela zabaldu zen, Algerko negoziazioen osteko eskema mimetikoki errepikatuz. **Antza, ez gara behar beste ohartu zergatik eta zertarako ireki genuen prozesu demokratikoa. Ez gara jabetu ez zela urrats batzuk emateko eta, besterik gabe, beste garai baterako oinarri batzuk jartzeko. Aldaketa politikoa bideratzeko garaian garela eta horrek gure burua aldatzera behartzen duela ez dugu behar beste barneratu.**

Azken hilabeteotan nora eza horri aurre egiteko ahaleginean murgildu gara, eztabaidaren bidez –nahiz eta ez den behar bezalako sakontasunarekin eta zabalatasunarekin egin– eta, unean uneko egoerari erantzunez, **eraiki beharreko estrategia eraginkorraren osagai batzuk praktikan jarritz.** Esanguratsua izan da, zentzu horretan, Aberri Egunean, greba orokorrean eta hauteskunde erronketan –Europarretan bereziki– egindako lana. Bidea egitea posible dela ikusi dugu, baina tronpatuko ginatke nora ezak jota hasi genuen kurtso politikoa birbidera genezan ahalbidetu duten ekimen horiek edozein ildo politiko elikatzeko balio dutela uste izango bagenu. Zentzu horretan, **argi behar du apustu politikoa zein den** -prozesu demokratikoa artikulatu eta bururaino eramatea-, **baita, apustu politikoa egin, egin behar dela ere, aukera eta baldintza berriak ez baitira besterik gabe sortuko.**

Oro har, hanka-sartzea litzateke azken urteotan egindako lana ahaztea, bai eta saihestezinak beharko luketen erreferentziak baztertzea ere. Konfrontazio garai gogorak bizi ditugu, baina aldaketa politikoa egiteko eta marko demokratikoa erdiesteko fase politiko berean gaudela ohartu behar gara. **Zentzu**

horretan, esan beharra dago, badela baldintza nahikorik lehenik marko demokratiko batera eta ondoren Euskal Estatuaren sorrerara eramango gaituen indar metaketa taktiko-estrategikoa egiteko. Bada baldintza nahikorik askapen prozesuan urrats erabakigarri bat egin eta aro berri bat zabaltzeko, horrek tresna politiko eta organizatiboak egokitzea eskatzen badu ere.

Guztiarekin, nazio askapenerako borroka zehaztapenaren fasera iritsi da urteotan eta sekulako erantzukizun falta litzateke horri behar bezala aurre ez egitea.

2. EGUNGO ABAGUNEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

2.1. MUNDUA

· **80. hamarkadaz geroztik, “Ongizatearen Estatuaren” kontrako eraso bideratu du kapitalismoak eta harez gero, borrokaren bidez lortutako eskubideak murrizten ari dira etenik gabe.** Gutxieneko oinarrien defentsa (sektore publikoa, hezkuntza, gutxieneko lan baldintzak...) neoliberalismoari aurre egiteko eta herri sektore eta langileria biltzeko bidea izango da. Oso kontuan hartzeko faktorea da nazio askapenerako estrategia garatzeko orduan, are eta gehiago orain, krisi ekonomikoa lehertu delarik. **Izan ere, Globalizazio Neoliberalaren krak horrek, espekulazioan oinarritutako garapen-eredu ekonomikoaren ondorioak mundu osoa hedatu eta nabarmen larriagotu baititu.** Euskal Herrian izandako azken greba orokorraren eta gai honen inguruan egindako zenbait ekinbideren haritik, Ezker Abertzaleak aldaketa politikoari aldaketa sozialaren beharra gehitu beharko lioke.

· **Azken urteetako bilakaerak, Munduko Ordena berri bateranzko bidea egiten ari garela ematen du aditzera.** Ordena berri hau ez da, askok uste zutenaren kontra, estatubatuar inperioaren botere ahalguztidunean oinarrituko. Aldiz, konplexuagoa (alde anitzekoa, batzuen esanetan) izango da, botere erregional ezberdinen sorrerak eta horien arteko kompetentziak aditzera ematen duten bezala. Horren adibide ditugu Brasil, Erru-

sia, India eta Txina (BRIC deritzanak), baita ALBA, UNASUR, ASEAN, Afrika Hegoaldeko Komunitatea... ere. Guztiarekin, oraindik orain ez dago garbi Nazioarteko Ordenaren krisi honetatik zer eratorriko den.

· **Inperialismoaren jokabide armatua aldatu egin da**, Honduraseko gertaerek eta Kolonbiak base militarrek Estatu Batuen zerbitzura jarri izanak zer ondorio izan dezaketen ikusteke badago ere. Estatu kolpe horrek bestelako irakurketarik eragin dezakeen arren, azken urteotan indar aurrerakoien aurrerakada gelditzeko ez dute halako modurik erabili, ez behintzat garai batean bezainbeste. Horren ordeztan, beste bide batzuk erabiltzen dituzte: xantaia ekonomikoa, ezegonkortasun politikoa eragiteko grebak bultzatu... Ekimen militar zuzena lehengaiak eta natura baliabide estrategikoak dituzten lurraldeetara (Ekialde Hurbila, Iran-Afganistan-Pakistan ardatza, Afrika erdialdea...) eraman dute nagusiki. **Egoera horretan, indar aurrerakoiek botere guneak erdietsi dituzte zenbait leketan, funtsean Hego Amerikan** (Venezuela, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, El Salvador). Hondurasen gertatu dena, hain zuzen, joera horri aurre egiteko ahalegina litzateke. Guztiarekin, **boterera iristeko bidea aldatu egin da leku horietan. Egun, salbuespenak salbuespen -FARC-en kasua Kolonbian-, klase-arteko indar metaketa heterogeneoan eta gehiengo sozial zabalen eraikuntzan oinarritutako estrategiak dira erreferentzia**. Era berean, XXI. Mendeko Sozialismoa deitu den hori, ez da klaseen dekretu bidezko deuseztapenetik abiatzen, botere politikoa eskuratu ondoren, progresiboki helburu horretara hurbilduz eta sistema-aldaketa estrukturala burutuz joango den prozesu sakon bat diseinatu eta garatzen baizik.

· **Muturreko islamismoaren jardura da, ezbairik gabe, beste aldagai nagusi bat**. Haren ekintzen oihartzunaz probetxua ateraz, borroka oro deslegitimatua nahi dute estatuek. Borroka ideologikoa sekulakoa da eta, hegabideen eraginez, gizartean ondorioak izan ditzake. **Askatasun eta eskubide demokratikoen murrizketa egiteko aukera aprobeztatu dute estatuek. Zer esanik ez Espainiar eta Frantziar Estatuek. Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Batasunaren kasuan emaniko epaiak** esaterako, Bush-ek abiatutako "Terrorearen aurkako gerra prebentiboak" eta ustezko seguritatearen aldeko apustu libertizidak munduaren luze zabalean zenbaterainoko errotzea izan duten erakus-

ten du.

· **Europar eskuineranzko joera nabarmena ematen ari da**: segurtasuna, eskubide eta lorpen sozialen murrizketa, etorkinen aurkako politikak, interbentzio militarrek... dira jaun eta jabe. Hori gutxi balitz, azken hilabeteeetan nabarmen gelditu da sozialdemokraziaren proiektu alternatibo eza. Ez hori bakarrik; Italia, Frantzia, Britainia Handia, Alemania eta Portugaleko kasuak sozialdemokraziaren krisia azalarazi dute. Bien bitartean, **ezker klasikoak egiazko botere alternatibarik eskaintzeko gaitasunik gabe jarraitzen du**. Edonola, Alemanian Die Linke-k, Portugalen PCP eta Bloko-k eta Grezian eta Txekian Alderdi Komunistek eskuratutako emaitzek esperantzarako tartea eskaintzen dute.

· **Europaren barruan estatuen eta mugen eraldaketarekin zerikusirik duten gertaerak izan dira: estatu berriak sortu dira** (Sobietar Blokearen erorketaren ondotik); **Europako barne mugak aldatu egin dira** (Kosovoko eta Montenegroko kasuak hor daude, irakaspen zeharo desberdinak eskaini arren); **eta guztiz zilegiztat jotzen diren proposamen independentistak ugaritzen ari dira** (Flandria, Eskozia...). Groenlandia dugu azken adibidea. Europatik kanpo, Quebecen erreferentzia ere aipagarria da. Aurrekoa bezalaxe, faktore hau ere oso kontuan hartzekoa da nazio askapenerako estrategia garatzeko orduan.

· **Azken garaian, Barack Obama EEBBetako agintari denetik, eta arrazoi ezberdinak tarteko direlarik** (interes geoestrategiko hutsak zenbaitetan, munduaren begietara bestelako irudia eman nahia besteetan), **gatazka politiko batzuei irtenbide negoziatua emateko urratsak biderkatu egin dira**. Aipatzeko modukoak dira Kurdistanen kasuan PKK alderdiak egindako eskaintzaren haritik jazotzen ari diren mugimenduak, Saharauriar Errepublikari buruz Austrian hartutako erabakiak, George Mitchell senatariaren eskutik Palestinan bideratzen ari diren gestioak, Filipinetako Armada Herritar Berriaren eta Gobernuaren arteko negoziaketan berrabiatzea, Gobernu horren beraren eta Mindanao uharteko Fronte Moroaren arteko negoziazioen jarraipena eta Kolonbiaren kasuan bideratzen hasi diren gestioak.

2.2. ESTATUAK

2.2.1. FRANTZIAR ESTATUA

· Arlo politiko-instituzionalari dagokionez, Frantziar Estua **bere barne antolaketa-ereduaren erreforma prozesua** burutzen ari da, zaharkitutako egiturak eguneratze aldera. Aitzitik, zanpatutako herrien nazio-aitortzak erantzun gabeko afera izaten jarraitzen du oro har.

· Bien bitartean, bai Euskal Herriaren bai zapaldutako gainontzeko **herrien nazioaldarrikapenek bere horretan segitzen dute eta luze gabe, indartu eta arazoiturri bilaka dakizkiokela aurreikus daiteke**. Martinikan eta Kaledonia Berrian esaterako, gatazkak berpiztu dira dagoeneko. Horrez gain, gogoratu beharra dago, Parisek Kaledonia Berriarekin hitzartutako autonomia-akordioaren arabera, 2014tik aurrera kanakoez autodeterminazio eskubidea garatu ahal izango dutela eta horrek, zalantza izpirik gabe, zapaldutako gainontzeko herrien nazioaldarrikapenak indartu egingo dituela. Bien bitartean, Korsikan, indar independentistak “Matignoneko akordioa” berritu eta batasuna lortzeko bidean aurrerapen handiak egiten ari dira. Eta gurean, Euskal Herrian, bai mugimendu abertzaleak bai Ezker Abertzaleak indartzen segitzen dute.

· Edonola ere, **Euskal Herriaren nazioaldarrikapenei dagokienez, Frantziar Gobernuak jarrera itxia** izaten jarraitzen du, nazio aitortza eta autonomia eskaerei sasi-tresnen bidezko asimilazio saiakeraren eta erreprezioaren bidez erantzunez.

· Arlo sozio-ekonomikoan berriz, **krisi ekonomikoak hastapenean eragindako erreakzio sozialaren ondoren** –greba orokorrak...- **Sarkozyren Gobernuak egoera bideratzea lortu duela dirudi**. Gaur gaurkoz, PSFk eta gainontzeko ezkerreko alderdiek –NPA barne– ez dute aukera hori aprobetxatzen jakin beren burua “alternatiba” gisa aurkeztu eta egoera politikoan aldaketak eragiteko. Hori gutxi balitz, PSFn barne gatazka eta zatiketa dira nagusi. Bestalde, artikulatu nahia dabiltzan **PSFtik ezkererako esparru politikoak oso sakabanaturik jarraitzen du**. Ezker alternatibotik sortu eta ikusmin handia eragin zuen NPAk nahiko emaitza apalak izan zituen Europar Hauteskundeetan. Edonola ere, krisi ekonomikoaren gaia gertutik jarraitu

beharreko elementua da, dagoeneko “errekuperazioa” iragartzen hasi diren arren, Estatuaren ezegonkortasuna eragin lezakeen aldagaia delako.

2.2.2. ESPAINIAR ESTATUA

· **Estatuaren barne antolaketa-ereduari buruzko eztabaidak ezegonkortasun iturri izaten jarraitzen du**. Eztabaida horren aldagai nagusia eta elementu zentrala Euskal Herriko gatazka izan arren, eredu osoa da zalantzak eta indar politiko nagusien arteko konfrontazio politikoa eragiten dituen:

- Kataluniako “Estatut”-ak Auzitegi Konstituzionalaren eskuetan jarraitzen du, bahu antzera, erabakiak eragin litzakeen erreakzioak eta ondorioak aurreikusi, leundu eta bideratze aldera.

- Komunitate Autonomikoen finantziazioaren aferak ere gatazka eragin du, lurraldeen arteko lehia politiko eta ekonomikoa areagotuz eta orobat, Estatuaren barne antolaketa-ereduaren eztabaida indartuz.

- Krisi ekonomikoak ere, diru publikoaren erabilera dela-eta “periferia” eta Madrilgo Gobernuaren arteko tentsioak areagotu dituen gero, eztabaida bera elikatu du.

· Hala bada, zanpatutako herrien nazioaldarrikapenak asimilatze aldera duela 30 urte martxan jarritako eredu autonomikoaren gaineko eztabaida itxi ez eta hori gutxi balitz, **autonomia maila handiagoen nahiz burujabetzaren aldeko jarrerak indartzen ari dira** (Euskal Herria eta Katalunian bereziki).

· Horren kontrakarrean, **sektore politiko eta mediatiko jakinak** (eliza, botere-gune ekonomikoak, eskuin muturreko taldeak...) **zentralizazioaren (“Espainia Batuaren”) aldeko jarrerak indar daitezen ahalegin itzela** egiten ari direla aipatu beharra dago.

· Bestalde, **Europar Hauteskundeetan PPK lortutako garaipenak eta krisi ekonomikoak estu hartu dute PSOEn Gobernu** eta datozen hilabeteetan are estutasun handiagoak izan ditzake, Espainia mailan krisiak dituen berezko ezaugarriak direla-eta.

· Bien bitartean, **Estatu mailako ezker politiko eta soziala txikituta dago**, egiazko alternatiba bat eskaintzetik oso urrun. Atal

honetan, Ezker Batuaren ahultasun eta nora ezari CCOO eta UGT sindikatuen PSO Erekiko morrontza lotsagarria gehitu behar zaie.

2.3. EUSKAL HERRIA

- **Aldaketa politiko-instituzionalerako aukerek markatzen dute Euskal Herriko egoera**, aukera horiek, Hego eta Ipar Euskal Herrian, molde eta intentsitate ezberdinekoak badira ere.

- **Hego Euskal Herrian, ziklo politikoaren arteko igarobidean jarraitzen dugu:** agortutako ziklo baten (autonomismoa) eta oraindik ere guztiz ezaugarritu gabeko ziklo berri baten artean, hain zuzen. Hala, uneko pultsu edota bataila nagusia, zabaldu beharreko ziklo berriaren norabide eta nolakotasunaren gainekoa da.

- Azken negoziazio prozesuaren apurketaz geroztik, denboran atzera eginez Lizarra- Garaziko garaietaraino iristen den pultsu edota bataila horren baitan, **blokeo egoera batean murgildurik gaude**, zeinetan ezker abertzalea, estatuaren oldarraldi errepresiboari eusten ari zaion arren, zailtasun handiak izaten ari den Estatuaren posizioa nahiz aldaketa politikoaren norabidea eta nolakotasuna baldintzatzeko.

- **Blokeo egoera horren oinarrian, hiru aldagai nagusi aurkitzen da:**

- **Estatutismoaren agorpena eta aldaketa politikorako nahia.** Lizarra- Garaziz geroztik, aldaketa politikoari buruzko eztabaida zabal zabalik da Euskal Herrian. Izan ere, hori da, gaur egungo **bataila politiko nagusia: zabaldu beharreko ziklo berriaren norabidea eta edukia.**

- Espazio soberanista-independen-tistaren zatiketa eta sozialki eta politikoki eragiteko mugapena, horren ondorioz, indar korrelazio orokorra (Espainiar Estatuari begirakoa) nahiz espezifiko (PNVri begirakoa) baldintzatzeko zailtasun handiak dituelarik.

- Ezker abertzalearen aurkako errepresioa. Ezker abertzaleak, Estatuaren errepresiboari eutsi bai baina Estatuetik nahiz EAJrekiko indar korrelazioak aldatuko dituen eta panorama politikoa aldaraziko duen indar metaketa bultzatzeko zailtasun handiak ditu.

- Agortutako ziklo nahiz blokeo egoera honetatik **ziklo berri bateranzko bi irteera posible** dago:

- Espainiar subjektu erabakitzailearen inposatzea eta Euskal Herriaren ukazioaren mantentzea oinarri, **egungo esparruaren erreforma huts bat egitea.** Filosofia konstituzionalista edota unionista, ezker abertzalearen minorizazio politikoan eta PNVren espainiar ereduarekiko integrazioan oinarriturikoa. Egun PNV zuzentzen duen sektoreak partekatzen duen apustua. Azken batean, duela 30 urte burututakoaren antzeko operazio politikoa: zerbait aldatzen denaren itxura egin deus ez aldatzeko.

- **Prozesu demokratiko bat artikulatzea**, zeinaren ondorioz egitasmo politiko guztiak ahalezko egingo litzuzkeen marko demokratiko bat finkatuko litzatekeen, gatazkaren konponbide demokratikorako akordio baten baitan. Indar soberanista eta independentisten metaketa dela medio, EAJ eta NaBairen estrategia eta posizio politikoa baldintzatzeko gai izango litzatekeen Ezker Abertzalean oinarritutako alternatiba.

- **Espainiar Estatuaren lehen aukera hori lantzen ari da**, noski. Eta horretarako, estrategia argia garatzen ari da: batetik, Ezker Abertzalea, aldaketaren motorra, etenik gabe ahulduz; bestetik, PNV eta NaBai hautu horrekin lerra daitezen saiatuz. Estrategia horren baitan kokatu behar dira UPN-PSN eta PSE-PP paktuak, baita azken horren haritik, EAEko marko autonomikoaren kudeaketa instituzionala berenganatzeko apustua ere. Biak ala biak Estatu paktuak dira, marko juridikoa blindatzea eta, denboraren joan etorrian, aldaketarako baldintzak ahultzea helburu dutenak.

- Bien bitartean, PNVK egoera zailean jarraitzen du. Estatutismoaren agorpenak batetik eta konstituzionalismoak estatutismoaren defentsa bereganatu izanak bestetik eskaintza politikorik gabe utzi du; eremu abertzalean bere sinesgarritasun kolokan dago eta eremu estatutistan PSE gero eta konpetentzia handiagoa egiten ari zaio. Zentzu horretan, oposiziorako bidea hartu izana oso faktore garrantzitsua dugu. **PNVren nagusitasun historikoa kolokan dago** eta hori oso kontuan hartzeko gaia da fase politikoa eta Ezker Abertzalearen estrategia zehazterako orduan, eremu abertzalearen beste erreferentzia nagusi bat egituratzeko aukera eskaintzen baitu.

· **EA eta EBren barne gatazkak eta zatiketak ziklo baten amaieraren eta ziklo berri baten inminentziaren erakusle dira**, ziklo berriaren atarian argipen estrategikoa baitezpadako baldintza da-eta.

· Guztiarekin, Hego Euskal Herriko marko juridiko-politikoak sabaia jo zuen aspaldi eta erreforma edo aldaketarik gabe ez dauka egonkortasuna bermatuko duen bilakaera posiblerik. Egun, euskal herritarren gehiengoak bestelako parametroetan oinarrituta eraiki nahi du bere etorkizuna: Euskal Herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidearenean, hain zuzen. Hartara, **sakoneko aldaketa politikorako aukera, ziklo estatutarioa gainditu eta ziklo demokratiko bat zabaltzeko aukera, zabalzabalik da.**

· Bien bitartean, **Ipar Euskal Herrian, eztabaida politiko-instituzionala, Estatu frantsesaren erreformari buruzko eztabaidak markatzen du**, Balladur batzordearen goi-erantzuten harira.

· Baina Espainiar Estatuaren kasuan bezala, Paris "statu-quo" a indartzen ari da Ipar Euskal Herriari begira. Hori dela eta, ez dugu zalantzarik, Balladur erreformak ez duela estatus aldaketarik ekarriko guretzat. **Hego Euskal Herriaren kasuan ez bezala, gaur gaurkoz ez dago indar harreman nahikorik Ipar Euskal Herrian benetako aldaketarik ezagutzeko.**

· **Aitzitik**, estatus aldaketarik ekarri ez arren, erreforma prozesu horren ondoriozko aldaketek, **sekulan baino parada ederragoa eskaintzen dute aitortza politikoaren aldarrikapenaren eta Autonomia proposamenaren jendarteratze ariketan sakondu eta eztabaidaren aitzindaritzea hartzeko:**

• Erreforma prozesu horrek, sasi-tresnen (Garapen Kontseilua, Hautetsien Kontseilua...) kudeatzailea den tokiko klase politikoa aztoratu du, departamenduen desagertzea iragarria izan baita. Garapen Kontseilua/Hautetsien Kontseilua egituren geroa kolokan sentitzen da. Hainbestera, non eta lehen aldiz, "Euskal Herria bere geroaren jabe" izateko aukera gisa, eskumen zabaleko koadro instituzional propioaren aukera apuntatu duten egitura honen ordezkariak Balladurren aitzinean.

• Halaber, Ipar Euskal Herriak beharrezkoa duen onarpen instituzional mota de-

partamenduaren terminoetatik harago kokatua da, faktikoki.

• Autonomia Kolektiboaren sorrera eman da. Aldarrikapena lantzeko indartu diren baldintza horiei esker sortu da Autonomia Kolektiboa, maila pertsonalean, Batasuna, Autonomia Eraiki eta EAko militanteak biltzen dituen. "Polo" berri baten lehen irudikapena da.

• Azpimarratu beharreko beste datu bat hauteskunde europarrek utzi duten argazkia da: ezker abertzalea eta mugimendu abertzaleak segitzen dute beren burua indartzen Iparraldean.

· Hego Euskal Herrian, nola Iparraldean, **"statu-quo"-a mantentzeko bi Estatuaren eskutik dagoen tresna nagusia errepresioa da.** Eta maila horretan sekulako ofentsiba jasaten ari gara, errepresio adierazpen mota guztiak zabalik daudelarik, gerla zikina maila batzuen aktibazioa barne, Jon Anzaren desagertzea iragartzen duen modura. **Ipar Euskal Herriaren kasuan, Ezker Abertzalearen nahiz oro har, abertzale mugimenduaren indartzeari erantzutera dator errepresioaren emendatze hori.** Hego Euskal Herriarenean berriz, **Ezker Abertzaleak aldaketa politikoa gauzatzeko datozen hilabete-urteetan bultzatzen lezakeen prozesua baldintzatzeko saio baten gisan ulertu beharra dago.**

· Guztiarekin, Ipar zein Hego Euskal Herrian **panorama politikoa lau familia eta bi eskaintza politiko nagusiren baitan argitzen ari da: PP-UMP, PSOE-PSF, PNV eta Ezker Abertzalea batetik; Frantzia edo Espainiaren baitako integrazioa eta burujabetza edota independentzia bestetik.**

· Gainontzean, **euskal jendartearen egituraren eta portaeran ematen ari diren aldaketak sakon aztertu beharra dago.** Etorkinen fenomenoak dugu faktore nagusietariko bat. Emigratioari dagokionez, ez gara soilik kanpokoan etorreraz aritu behar. Horretaz gain kontuan izan behar dugu ere globalizazioaren ondorioz askoz ere euskal herritar deslokatuagoa izango dugula (gaur hemen lanean, bihar nork daki!). Beste faktore batzuk badaude ere euskal gizartearen egituraketan, hala nola, hiri handietako kontzentrazioen ondorioz sortzen ari den gizarte-mota eta horri lotuta ematen ari den balore-aldaketa (kontsumismoa eta indibidualismoa bezalako baloreen indartzea, elkartasuna

eta kolektibotasuna bezalako baloreen kaltean)... Horiek guztiek gizartearen portaerak aldatzen dituzte, ia oharkabean. **Aldaketa horien abiadura askapen prozesuarena baino handiagoa da, azken honen nahiz gure proiektu politikoaren garapenerako baldintza negatiboak sortuz.** Hala, ziklo aldaketa bideratu behar dugu lehenbailehen, Ezker Abertzaleak, joera horiei guztiei aurre egite aldera, lan eta komunikazio soziala jorratu eta beharrezko boteretresnak eskuratu ahal izan ditzan.

3. FASE POLITIKOAREN EZAUGARRITZEA

Fase politiko hau aldaketa politikoaren fasea da. Behin aldaketarako baldintzak sortuta, aldaketa gauzatzekoa. Beraz, **fase politiko honen helburua, aldaketa politikoa egitea da:** marko konstituzional-estatutarioa gainditu eta Euskal Herriaren aitortzan eta euskal herritarren borondatearen errespetuan oinarrituko den marko demokratikoa eraikitzea.

Helburu hori lortzeko, indar metaketa, indarren aktibazioa, indar-harremanen aldaketa, negoziazioa eta akordio politikoa oinarri izango dituen prozesu demokratikoa artikulatu beharra dago, halako prozesu bat garatzea baita marko aldaketa egiteko bide posible bakarra.

Zentzu horretan, Anoetako proposamena eragin zuten aldagaiek bere horretan segitzen dute, nahiz eta ohartu behar garen, aldaketarako baldintzak, probesten ez badira, galbidean ere jar litezkeela. Hala, **sakoneko aldaketarako baldintzak** dira:

- Espainiar Estatuaren **trantsizio garaian marraztutako zikloaren agorpena.**
- **EAJren** (eta maila batean UPNren) erakundearen kudeaketa politikoaren **ereduaren agorpena.**
- Euskal Herriaren **erabakitze eskubidearen eta sakoneko aldaketa politikoaren aldeko jarrerak jendartean harturiko indarra,** aldaketarako aukera berri honi gatazka bere horretan mantenduko luketen errezeta estatutario berrien bidez erantzun dakien zailduz.

- Gatazkaren gakoei erantzungo liekeen **negoziazio prozesu baten aldeko jarrera nagusia.**

- **Independentziaren aldeko oinarri sendoa.** Hego Euskal Herrian inoiz ez da %25-30 baino txikiagoa.

- Ñabardurak ñabardura, **Ezker Abertzalearen tesiekin bat egiten duen gehiengo sindikala.**

- Konponketaren aitzindari izango den eta PNV/UPN kudeaketa ereduari alternatiba emango dion **Ezker Abertzalearen proposamenaren zain dauden gizarte barruko joera indartsuak.**

- 2001eko zatiketak abertzalegoan sorturiko krisia gainditzeko bidean, **Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan abertzaletasunak izandako susperraldia,** EH Bai-ko emaitzek eta hainbat herriko etxeetan lortutako ordezkariak erakusten dutenez. Jakin badakigu prozesuaren hasierako ibilbideak Hego Euskal Herria izango lukeela eremu nagusia, baina aurreko saioan ikusi dugu horrek ere eragin ona duela Ipar Euskal Herrian.

Oinarri zehatzak dira, objektiboak, Ezker Abertzaleak ausart jokatzeko eta azken helburuen bidean urrats esanguratsu bat egiteko. Aukerak profitatu behar dira.

Duela hogeita hamar urte martxan jarritako marko juridikoa agorturik da eta hala, **gauregungo borroka hauxe da: zabaldu beharreko ziklo berriaren ezaugarritzea eta lidergoak, aldaketa politikoaren zentzua azken batean, determinatzea.** Hala, herri atxikimendua egituratzea eta indar korrelazioa aldatzea behar dute Ezker Abertzalearen lehenetsunak, horiek baldintzatuko baitituzte aldaketaren norabidea eta edukiak. **Aldaketarako baldintzak, aldaketaren norabidea eta mamia bermatuko dituen indar metaketa batean, jomuga taktikoen** (Euskal Herriaren aitortza; euskal herritarren borondatearen errespetua) **nahiz estrategikoen** (independentzia eta sozialismoa) gaineko indar-harreman berri batean, bihurtu behar ditu **Ezker Abertzaleak.**

Ziklo berri horren atarian, batzuek eta besteak dekantazio estrategikoak egiten ari diren honetan, **esparru independentista artikulatu eta berau jokaleku politikoaren erdigune bilakatu behar du Ezker Abertzaleak.**

Estatutismoak sabaia jo duen honetan, jakobinismoaren politikak agortu diren honetan, hautu estrategikoa indartuz orain arte nagusi izan diren erregionalismoak gainditu eta ordezkatzeko apustua egin behar du. Europako nazio ezberdinetan independentziaren alde egiten ari den hautu horixe gidatu behar du Euskal Herrian Ezker Abertzaleak.

Horretarako guztirako eraginkorra izango den estrategia diseinatu eta garatu behar dugu.

4. ESTRATEGIA INDEPENDENTISTA

4.1. ERREFERENTZIA ESTRATEGIKOA

Independentzia eta sozialismoa dira Ezker Abertzalearen helburuak, eta Euskal Estatu Sozialista egitasmo zehatza, nazio askapena eta askapen soziala azken bururaino eramateko.

Zergatik behar dugu Euskal Estatu? Luzaz bi estatu zapaltzaileen ukapena, asimilazio saiakera eta inposizioa jasan ostean, Euskal Herriak bizirik irauteko eta bere garapen osoa bermatzeko biderik eraginkorrena delako. Herri txikien eskubideak zangopilatuz eraiki diren bi estatu horien barruan Euskal Herriaren garapen bete-betea lortzeko formularik nekez aurkituko da, zatiketa eta botere-gune arrotzak gehiegizko oztopo baitira. Herri nortasuna, kultura eta hizkuntza (Euskal Herri euskalduna) mugarik gabe indartzeko eraiki nahi du Ezker Abertzaleak Euskal Estatu independentea, baita euskal herritarren eskubideak, ongi izatea eta askatasuna bermatzeko ere. Estatu propio batek eskaintzen dituen bitartekoekin garatu nahi dugu gainontzeko herriekiko internazionalismo eraginkorra ere. Izan ere, Estatu batek eskaintzen dituen botere ahalmenak, baliabideak eta egiturak behar-beharrezkoak dira helburu horiek erdiesteko, inoiz ahaztu gabe herria bera dela oinarri nagusia. Mundura begiratu besterik ez dago estaturik gabeko herri zapalduak asimilatuak izateko edota desagertzeko mehatxupean daudela ikusteko.

Zergatik behar dugu Estatu Sozialista? Esplotazioari eta langileriaren bizkar gainean

eraikitako abantailei aurre egiteko modurik eraginkorrena delako. Herritarren beharrak aseak izatea eta guztiek aukera berdinak izatea bermatu nahi dugulako. Euskal Herriko sozialismoa eraikitzeke mundu luze-zabalean izandako esperientziak eta jarduera iraultzaileak zein aurrerakoiak kontuan hartuko badiugu ere, berezko eredu gauzatzen saiatuko gara. Askapen borrokaren ibilbidean jarritako oinarriekin eraikiko dugu eredu hori.

Independentziaren eta sozialismoaren helburu estrategikoen proiektu integrala osatzen dute. Horrela, aipamen berezia behar delako, emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzea eta sistema patriarkala gainditzea ezinbesteko osagaiak izango direla nabarmendu behar da gaurdanik.

Beste eginbeharrak gutxietsi gabe, ama lurra-
ren zaintza ere lehenetsuzko betebeharra izango du Euskal Estatu Sozialistak.

Euskal Herriko Estatu Sozialistak Konstituzio bidez jasoko ditu herritar ororen eskubideak, erakundearen egituraketa (nazio zein beste mailako egituraketa) eta sistema politikoaren zehaztapena. Demokrazia parte-hartzaileari ateak irekiko dizkio. Sistema politikoa hauteskundeetan oinarritua izango da eta hauteskunde horietan lortutako babesaren arabera kudeatu ahal izango dituzte alderdi politikoen erakundeak. Horrekin batera, herri eta herri sektoreen parte-hartze zuzena ahal bezainbeste indartzeko neurriak eta mekanismo zehatzak arautuko dira. Proiektuen eztabaidan eta erabakietan parte hartzeko aukera izan behar dute herritarrek eta herri eragileek. Askatasun demokratikoak bermatuak izango dira.

Helburu estrategikoen dira, baina horien erreferentzia gaur egun ere erabili behar dugu, helburu estrategikoen horiek ematen baitiote osotasuna gure ibilbideari. Azken helbururik gabe, tarteko helburuak hanka motz gera litezke, tarteko helmugarik gabe azken helburua ilusio huts bilaka litekeen bezalaxe.

Ez da, ordea, ilusio bat. Txosten honen aurreko ataletan esan bezala, **munduan aukera hori irekia dago.** European estatuak sortu dira eta eztabaida ireki-irekia da Belgikan, Eskozian eta Groenlandian, esate baterako. Horri Quebec-eko kasua gehituta, Lehen **Mundua deritzon horretan estatu berrien sorrera aukera erreal dela ondorioztatuko dugu, gehiengo demokratiko sen-**

doak egituratzeko gaitasuna badago. Izan ere, autodeterminazio eskubidearen erabilera ohiko bilakatu(ko) da, bai eskubide hori onartzen duten estatuetan bai eskubide hori onartzeari uko egiten dioten estatuetan. Aipagarria da Quebeceko edo Eskoziako kasuak eskubide hori onartzen ez duten legedietan garatzen ari direla. Ekintzen bidez erabiltzen da eskubidea. Aipagarria da ere Kosovoko kasua, izan ere, estatuak lurralde horren independentzia onartzen ari dira nahiz eta Europar Batasunaren xedapenen kontrakoa izan (edonola ere, ez da lan honen helburua Kosovon gertatutakoa epaitzea, erabilitako metodoak –potentzien nahien arabera– zalantzak sortzen baititu).

Horregatik guztiagatik zera baieztatu dezakegu: herritarren hitzari esker lorturiko Euskal Estatuaren sorrerak babes garrantzitsuak lortu ahalko lituzkeela nazioartean. Babes horiek gaurdanik landu behar ditugu; izan ere, nazioarteko zenbait eragile garrantzitsuk horrelako aukera normaltasun osoz hartuko luketela ikusi ahal izan genuen Suitzan izandako negoziazioetan.

Kanpoko faktorea baino are garrantzitsuagoa dugu barne faktorea. Euskal Herria herri antolatua da, dinamikoa, prestatua, errenta handiarekin eta baliabide ekonomikoekin (ez dugu horrekin bazterketa eta miseria gorria jasaten duten sektoreen egoera gutxietsi nahi, eta horregatik gure proiektu estrategikoa ezkerretik eraiki nahi dugu). **Independentziarako prestatua dagoen herria gara. Heldutasun nahikoarekin eta oinarri politiko, sozial zein ekonomiko sendoekin.**

Horrenbestez, gure estrategia zehaztu behar duen ildo politikoak helburu estrategikoen gaineko lana kontuan hartu behar du, maila ezberdinetan: ideologikoan (Euskal Herriarentzat eta euskal herritarrentzat, arlo guztietan, Euskal Estatu aukera onuragarriena dela indartzeko), praktikoan (egunerokotasunean egin litezkeen urratsak - herri lanabesak sortuz- azken helmugan zer lortu nahi dugun erakuts dezaten) eta politikoan (fase honetan lortu beharreko akordio politikoak independentziari ateak ireki behar dizkio).

4.2. ERREFERENTZIA TAKTIKOA

Euskal Estatu Sozialistarako bideak tarte-

ko geltokiak edo urratsak (geltoki edo urrats taktikoak) behar ditu ezinbestean. Zentzu horretan, **autodeterminazioaren eta lurraldetasunaren korapiloei erantzun adostua emango dien marko demokratikoa da egungo gure helburu taktikoa.** Euskal Herriaren aitortza eta euskal herritarren borondatearen errespetua oinarri izanik, proiektu politiko guztiak, eta beraz, Euskal Estatuaren sorrera, ahalezko egingo dituen.

Ezker Abertzaleak Uztaritzen eta Anaitasuna Polikiroldegian aurkeztu zuen marko demokratikoari begirako bere proposamena. Proposamen horrek, hitzak hitz, bi oinarri ditu: instituzionalizazioa Ipar Euskal Herriarentzat eta lurralde batasuna Hego Euskal Herriarentzat, bietan ere herritarren erabakitzeko eskubide osoa jasota, marko juridiko-politikook Euskal Herri batuaren eta independentziaren bidea egingarri bihurtu behar baitute. Nazio aitortza jasoko lukeen autonomia plazaratu, eta Euskal Herri osorako proposamena garatu genuen, errealitate bakoitzari egokituta. Besterik da, proposamen hori ez dela marko demokratiko bati begira izan daitekeen aukera bakarra eta beraz, beste proposamenik ere izan litekeela.

Azken negoziazio saioan, lau herrialdeetako batasunaren afera izan zen korapilo nagusietako bat. Horren inguruan hausnarketa egin beharra dago. Izan ere, Nafarroa Garaiaz eta lurralde batasunaz dabilgun mezua, maila batean, defentsiboa da, jakin badakigulako, finean, lurralde batasuna emango bada, horretarako nafar herritarren borondatea ezinbestekoa izango dela eta, beraz, hegemonia sozialaren berreskurapean izan behar duela gure helburua. Horri begira, **erabakitzeko eskubideaz ari garenean, euskaldunok gure barne antolaketan erabakitzeko eskubide osoa dugula da aldarrikatu beharrekoa.** Euskaldunok, kasu honetan bi eragin-guneetako herritarrok, behar dugula izan, gure borondatearen muga soilarekin, gure arteko harreman mota ezarriko dugunak.

4.3. NAZIO ERAIKUNTZA

Nazio Eraikuntza 93-94. urteetan eginiko hausnarketan ekarri zen Ezker Abertzalearen strategiara osagai nagusi gisa. Alde batetik, marko aldaketarekin bat egin zezaketen sektoreak ez ziren ETA-Estatu negoziazio estrategiari lotzen. Beste batetik, estatuek

zutabe estrategikoetan (euskara, ekonomia, hezkuntza...) eragiten zuten higadurari aurre egin behar zitzaion. Nolabait, elkarrekin lana eginez, beste pertsona eta eragileei indarrean dagoen markoaren mugak erakusten genizkien alor sektorialean ere, eta horrela marko berri baten aldarrikapenera erakartzen genituen. Estatutua hilda zela esanez ELAk eginiko adierazpenak erakutsi zuen estrategia hau emaitzak ematen ari zela. Gerora, logikoki, erronka marko berri hori eraikitzeak izan behar zuen. Halere, esan behar dugu eraikuntza nazionala marko aldaketarako lanabesa dela, nahiz eta zenbaitek -modu okerrean- errealitate alternatibo bat eraikitzeke modutzat irudikatu duen.

Gaur egun ere, **marko aldaketarako fasean gaudelarik, nazio eraikuntza balore politiko handiko ardatza da**, ondoko arrazoiengatik:

- Gaur egungo eremu instituzionalen mugak eta inposizioaren errealitate gordina –arlotzietan islatzen dena– azalarazten segitzen du, salaketa hutsa baino harago.
- Beraz, nazio eraikuntzak aldaketa politikoaren beharra ere azalarazten du.
- Halere, aldaketaren egunaren zain egon gabe, egunerokotasuna ematen die Euskal Herriaren aldeko lanari eta borrokari. Fase honetan hain beharrezkoa den herri aktibiziorako lanabesa da.
- Aldi berean, ekinbide eraginkorra da, urrats zehatzak eman baitaitezke. Proiektu zehatzak gauzatzeko bidean jartzen ditu. Nazio eraikuntzak lehentasunak finkatzea eskatzen du eta, horregatik, Ezker Abertzaleak herri zutabeak marrazten dituzten arloak indartzea deliberatu zuen aspaldi: hizkuntza, hezkuntza, lurralde antolaketa, sozio-ekonomia, naziotasuna eta lurralde artikulazioa.
- Hizkuntzaren eremuan, Euskal Herri osoan euskara ofiziala izan dadin eta hizkuntza eskubideak osoki berma daitezzen egin behar dugu borroka.
- Hezkuntzan, sistema publiko nazionala eraikitzeke urrats berriak egin behar dira. Euskal (Herriko) Unibertsitatea sortzeko dinamika indartzea izan liteke lehentasun.
- Alor sozio-ekonomikoan, injustiziari aurre egiteaz gain (berriro aipatuko dugu gai hau

hurrengo atalean), Euskal Herriak behar duen egitura ekonomikoaz eta sozialaz eztabaida piztu behar da eta horretarako proiektu zehatzak ere bideratu behar dira. Zentzu horretan ezinbestekoa izango da sindikatu abertzaleen elkarlanak - proposamen eta lan amankomunaren diseinu organizatiboan- perspektiba eta irismen estrategikoagoa izatea.

· Lurralde antolaketan, gai ugari dago jorrazteko, bi zentzutan: alde batetik, gaur egungo gehiegikeriei aurre eginez eta, bestetik, alternatiba zehatzak eraikiz. Azpiegiturak, hondakinak, natura baliabideak... hamaika gai dago, bai herri mailan eta baita eremu zabalagoetan ere. Aipamen berezia merezi du Abiadura Handiko Trenak (AHT), izan ere, makro-proiektu hau Euskal Herriari inposaturiko eredu ekonomikoaren eta sozialaren isla nagusia da. AHTren proiektuari aurre egiteko arrazoi asko daude. Ingurumenari egiten dion kalteagatik, proiektuak defendatzen dituen interes ekonomikoengatik, prozeduraz informazioa eta herritarren iritzia mespretxatzeagatik, lehentasuneko alorretan –garraioa barne– aurrekontu publikoei ekartzen dien hipotekagatik... Beraz, Ezker Abertzalearen proposamena argia da: eraikuntza lanak bertan behera geratzea, Euskal Herriaren eta euskal herritarren beharren arabera eztabaida egingarri bihurtzeko. Proiektuaren inposizioa salatzeko eta eztabaida hori exijitzeko egin beharreko lanean, herri mugimenduak izan behar duela protagonista eta horren indarraren arabera garatu behar dela borroka uste du Ezker Abertzaleak. Bestalde, lurralde antolaketaren gaiari gagozkiola, ezin dugu eskema “anti-sistema” sinpleetan erori. Ezker Abertzaleak Euskal Estatuaren sortzea du helburu eta horrek, bide horretan bultzatu beharreko indar-metaketaren izaera interklasista aintzat hartzea eskatzen du. Hots; ezker abertzaleak independentziaren bidetik gizarteak aldatu nahi du, baina horretarako, edo hain zuzen ere horregatik, ezin du bere ildo politikoa erabat hipotekatu arlo sektorial bateko borroka jakin bat dela medio, borroka hori planteatzeko moduak aipatu indar metaketa oztopa dezaketen kontraesanak sortzen baditu.

· Naziotasunaren aldeko lana aurreratu da azken urteotan, maila orokorrean (gorabeherekin, EHNA ekimena) eta arlo zehatzetan (kirolean eta selekzioekin gertatutakoa dugu adibide). Potentzialitate handiko arloa da eta, estrategikoki, Euskal Estatuaren helburua indartzen du.

· Lurralde artikulazioak lehenetasun politiko bilakatu behar du prozesu demokratikoan, azken horrek norabide eta emaitza egokiak izan ditzan osagai garrantzitsua izateaz gain, izaera estrategikoa duen zeregina baita (nazio kontzientzia eta identitatea indartu...). Hala, Euskal Herria osoa bere baitan hartuko duten antolakunde eta instituzioak berrantolatatu eta berriak sortu behar ditugu, izan kultur arloan, izan kirolarenean, izan instituzioenean...

Edonola ere, hamaika dira hamarkada haue-tan martxan jarri, garatu eta gauzatu diren herri proiektuak eta dinamikak. Aipatu eremuez gain, beste askotan egindakoak - kulturgintzan edo hedabideen alorretan, adibidez- herri nortasuna errotzen ari dira, eta horrek garrantzi estrategiko handia du. Egia da, halere, "nazio eraikuntza" abizenak izateagatik proiektu askoren benetako emaitza ez dela behar beste aztertu. Gainerako eremuetan bezalaxe, hemen ere ekimenen arrakasta maila eta ondorioak aztertu behar ditugu. Bestela, itxurak egiteko arriskuan eror gaitzke.

Ezker Abertzaleak eraikuntza nazionalen murgildutako eragilea izan behar du. Nahaste handi samarra dugu gai honen inguruan. Eraikuntza nazionala eta horren maila gorena izango litzatekeen herri gisako estrategia ezin dira soilik Ezker Abertzalearen baitan burutu. Sortzen diren ekimenak eta antolakuntzak ezin dira Ezker Abertzalearen gune bilakatu. Hausnarketa berezia merezi du egin beharreko indar metaketak. Jakina, Nazio Eztabaidagunea moduko eragileek zer esan handia dute hausnarketa eta lan horretan.

**Eraikuntza nazionalen urrats eraginkor-
rak egiteko prozesu demokratikoa arti-
kulatu eta botere mailak eskuratu behar
ditugu, arlo horretan ere instalatutako
blokeoa gainditu eta bere zerbitzura bali-
bide ahaltsuak jarri ahal izateko. Gure es-
trategia boterea eskuratzean oinarritzen
da.** Horretarako nahi ditugu independentzia eta Estatu. Azken urteotan, jarrera "alternatiboek" oinarritzko ikuspuntu politiko hau eta gure estrategia desitxuratzeko arriskua sortu dute.

4.4. EZKERREKO BORROKA

**Nazio askapena eta askapen soziala
txanpon bereko bi aurpegiak direla aspal-**

di zehaztu zuen Ezker Abertzaleak. ETaren V. Asanbladak askapen prozesuak agian izan duen ekarpen ideologiko nagusia finkatu zuen. Halere, egia da zenbaitetan -gatazka- ren zentralidadea dela, PNVrekin izandako harremanak/dependentziak direla...- ezkerreko izaera hori bigarren maila batean geratu izan ohi dela. Horregatik, arlo honetan ere militanteen formakuntza beharrezkoa da, bereziki belaunaldi berriei begira.

**Gaur egungo fasean ezkerreko eskaintza politikoe-
k, jarduerak eta borrokek garrantzi handia izan behar dute.** Lehenik eta behin, **egoerak berak horrela eskatzen du-
lako.** Krisi ekonomikoa, beste behin ere, herri sektoreen eta langileriaren bizkarren gainean erori da, finantza sistema diru publikoz ureztatzen duten bitartean. Hazkunde garaiko irabaziak betikoen eskuetara joan ziren eta garai horretan izandako lan prekaritatea ber-
riz, langabezi bihurtzen ari da orain.

Langile mugimenduak zeresan handia du, klase posizioa finkatuz eta soldatapekoen eskubideak aldarrikatuz. Herri sektoreek ere (merkatari txikiak, autonomoak, kooperatibistak...) gogor pairatuko dituzte krisiaren ondorioak, eta horregatik **aliantza behar da egin, herri sektoreen eta langileriaren arteko aliantza,** etsai diren esplotatzaile eta espekulatzaileen kontra.

Lan munduan, prekaritatea eta istripuak ditugu etsai nagusietarikoak. Bestalde, ezin dugu ahan-tzi sektore sozial jakin batzuek jasaten duten egoera bereziki larria. Gazte-
ria eta emakumeak are eta baldintza txarra-
goetan sartzen dira lan merkatura, sartzerik badute. Era berean, bizitza osoa aberastasu-
na sortu duten adineko pertsona asko-
ren (erretretarekin batzuk, ezer gabe asko, etxe-
koandreak kasurako) baldintza gogorak ere kontuan hartu behar ditu mugimendu in-
dependentistak eraiki behar duen ezkerreko borroka. Bazterketa sozialaren kontra, aipa-
tu horiek guztiek bizitza duina izan dezaten borroka egin behar da.

Lan eta diru sarreraren arazoez gainera, garrantzi berezia du etxebizitzaren arazoak, pertsona askorentzat sekulako buruhauste bilakatu den arazoak. Askok etxe duinik izateko aukerarik ez dutelako, beste askok, nekez ordaindu dezaketelako.

Etxebizitzaren eta zoruaren ustiapenetik era-
torritako aferak alde ezberdin asko ditu Eus-

kal Herrian. Adibidez, Ipar Euskal Herrian lehen mailako dimentsio politikoa ere badu, bigarren bizitzako etxeak herri nortasunaren zampaketa sinbolo ere bilakatu baitira. Eta jendeak salaketa ekimenak begi onez ikusten ditu. Afera ez da gaurkoa, Iparretarrak erakundeak ere higiezin sektorea izan zuen bere ekintzen helburu nagusietako bat.

Bizi baldintzen alde ez ezik pertsonen eskubideen eta jendarte integrazioaren alde ere tinkotasuna izan behar du Ezker Abertzaleak. Arrazakeria, sexu esplotazioa, indarkeria matxista, homofobia... ezkerreko independentisten etsaiak dira, gure programa politikoan eta gure eguneroko jokabidean. Ezkerreko borrokak gure aliantza politika eta beste indarrekiko harremana zehaztu behar du (gai horrek atal berezia du aurrerago). Adibidez, klase interesen arabera azterketa eginda, begien bistakoa da PNV noren mesedetan ari den; langileriaren lanaren gainbalioa eskuratzen dutenen eta negozio handiak egiten dituztenen mesedetan, hain zuzen ere, nahiz eta egia den alderdiaren oinarri sozialean herri sektoretako jende asko badela. Afiliatuen eta boz emaitzen artean langile asko izateak ez du aldatzen alderdiko egituraren eta botere-guneen norabide argia. Beraz, PNVren alternatiba ez da soilik burujabetza eskuratzeko jardueratik eraiki behar, baizik eta baita ezkerreko jardueratik ere.

Guztiarekin, **eraldaketa sozialaren bidean, horrez guztiaz gain, baita horretarako guztirako ere, baliabide politiko eta ekonomiko jakinak izango dituen marko propio eta endogenoaren (Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozioekonomikoa) erreferentzia finkatu eta hezurramitzeko lan egin behar dugu, sozialismoaren bidean erdietsi beharreko ezinbesteko tarteko helburu gisa.** Sindikal-gintza abertzaleak -LABen eskutik- aspaldi finkatu zuen erreferentzia hori aldaketa soziala politikorekin lotzeko.

Azken greba orokorrak, krisiari erantzuna emateaz gain, erreferentzia eta eskakizun horiek mahai gaineratu zituen Madrilgo politiketikiko CCOO, UGT eta instituzio autonomikoen (EAE eta NFK) menpekotasuna gaintu eta krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egingo dieten neurri ekonomiko eta sozial eraginkorak bideratu ahal izateko.

Bukatzeko, **gure ezkerreko borrokak nazioartean ere erreferente argiak behar ditu.**

Zentzu horretan, **Europar eta Hego Amerikan jorratzen ari diren prozesu askatzaileekin nahiz XXI. Mendeko Sozialismoarekin identifikatzen gara** eta azken horretan parte hartzeko prestutasuna agertzen dugu. Horiek dira Ezker Abertzalearen erreferente ideologiko eta politikoak.

4.5. NAZIO ESTRATEGIA

Euskal Herrirako nazio proiektua gauzatzeko nazio estrategia garatu behar dugu, ezinbestean; bestela, nazio estrategiarik gabe, zatiketa egoerak jango gintuzkeelako. Horregatik, **Ezker Abertzalearen jarduera politikoak Euskal Herri osoa izan behar du erreferentzia eta Euskal Herri osora bideratuta egon behar du.**

Lehen osagaia Ezker Abertzalearen beraren egituraketa da. Antolakunde nazio izaera indartu behar da: Euskal Herri osoko erakundeak behar ditugu. Egoera politikoa, soziala eta ekonomikoa aztertzeko orduan ere, osotasunari begiratu behar diogu, azterketa mugatuek ildo politiko mugatuak baitakartzate beraiekin. Ildo politiko nazionala zehaztea izango da nazio strategiaren azken urratsa. Proposamenak eta ekimenak nazio ikuspuntutik egingo ditugu. Hori guztia bermatzeko, Ezker Abertzaleak, egituren osaketaz harago, beste baliabide batzuk landu behar ditu (informazioa, formazioa, metodologia...).

Horrek guztiak, haatik, ez du esan nahi tokian tokiko errealitatek egokitu behar ez dugunik. Aitzitik, **lurralde eta eremu bakoitzean nazio estrategiak lekuko ezaugarriak hartu behar ditu kontuan. Koherentzia estrategikoan kokaturik, eragin-gune bakoitzak bere erritmoak eta faseak baititu.**

Badira, gainera, lurralde jakin batean edo batzuetan soilik eragiten duten gai garrantzitsuak. Kasu horretan, nazio estrategiak baliabide izan behar du, adibidez, euskaldunon arteko elkartasuna garatzeko. Alderantziz ere gerta liteke: leku jakin batean ondo egiten den lanak nazio estrategia elika dezake.

Gure jardueraren ardatza denez, nazio estrategia ez dago abaguneei lotuta. Lizarra- Garaziko garaia izan edo Espainiako Gobernuarekin negoziazio prozesua ireki –bi adibide jartzearen–, nazio estrategian oinarritu behar dugu gure jarduera, nahiz eta egoera ezberdinak izan eta emaitzen “ikusgarritasuna”

ere ezberdina izan.

Beraz, fase politiko honetan nazio estrategia-ri eutsi **behar diogu, are eta gehiago prozesu demokratikoaren garapenean ekarpen oso garrantzitsua egin dezakeenean**. Prozesuak aurrera egin ahala, xehetasunetan sartu beharko gara (eragile bakoitzaren mugak, lurraldeen berezitasunak...) eta, horregatik, Euskal Herri osoaren erreferentziari eutsiko dion estrategia funtsezkoa izango da egin beharreko bidea helmuga okerrera iritsi ez dadin.

5. PROZESU DEMOKRATIKOA, ALDAKETA POLITIKORAKO GAKOA

5.1. PROZESU DEMOKRATIKOAREN EZAUGARRITZEA

Prozesu demokratikoa ekimen politiko orokorra da, aldaketa politikoa gauzatzea eta, horretarako, beharrezko indar-metaketa eta indar-harremanak mamitzea helburu duena.

Hori horrela, prozesu demokratikoa **ez da lan-ildo huts bat, estrategia independentistaren zutabea baizik**. Akordio politikoak eta berau gauzatzeak independentzia eskuratzeko faseari ekiteko beharrezko diren baldintza juridiko-politikoak eraikitzea ahalbidetuko dute. Akordioak eta berau gauzatzeak baldintza hobeagotan eta beste modu batez helburu estrategikoak lortzeko borrokan segitzea ahalbidetuko dute.

Prozesu demokratikoa **askapen prozesuan egin beharreko fase oso bat da, bat dator gure ibilbide politiko historikoarekin eta azken etapan (independentzia eskuratzeko etapan, hain zuzen) lidergoa izateko aukera eskainiko digu**. Zentzu horretan, fase horretan zehar, elkar uztarturiko bi zeregin orokorri erantzun behar die Ezker Abertzaleak: batetik, aldaketa politikoa bideratzea, marko demokratikoa finkatuko duen akordio politikoa erdietsiz eta gatazka konponduz; eta bestetik, posizio estrategikoak (independentista eta sozialistak) indartzea (Euskal Estatuaren aldeotasuna areagotu, Euskal Herriaren artikulazioa indartu, Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta Euskal Espa-

rru Sozio-ekonomikoa hezurramituz...).

Nazio eraikuntza prozesu demokratikoaren ezinbesteko osagaia da. Askotan gertatu izan da nazio eraikuntza eta prozesu demokratikoa elkarren kontra jartzea, biak ala biak beharrezko direnean; biek ala biek uztarturik, eta ongi gainera, behar dutenean. Izan ere, nazio eraikuntzak, bere horretan eta joko arauen aldaketa politiko sakonik gabe, ez du eraikiko Euskal Herriak behar duen eremu politiko berria. Gauza bat da kontra-botere egiturak sortzea eta oso bestelakoa boterea eskuratzeko. Esan gabe doa lortu beharreko marko demokratikoak nazio eraikuntza are eta gehiago garatzeko baldintzak eskainiko lituzkeela. Aldi berean, prozesu demokratikoak, huts-hutsean, ez du aldaketaren norabidea bermatuko. Herriak martxan behar du eta horretan nazio eraikuntzak berebiziko garrantzia du.

Prozesu demokratikoa gaur egungo "joko arauak" aldatu eta konfrontazioa, Ezker Abertzalea indartsuagoa eta eraginkorragoa izango den parametroetara eramateko bitartekoa da; **prozesu demokratikoa aldaketarako estrategia eraginkorra da**.

Prozesu demokratikoak denbora gure alde jartzea ahalbideratu behar du. Estatu denbora faktorea baliatzen ari da Ezker Abertzalea desgastatu eta aldaketarako izan badien baldintzak desagerrarazteko. **Prozesua abiatuta, denbora gure aldeko faktore bilakatu eta berau gestionatu behar dugu Estatuari irtenbide demokratiko batekiko itxikeria sostengaezin egiteko**. Denboraren joan etorrian, bai nazioartean bai jendartearen begietara, Estatu berrero eta gu biktima bilakatzea lortu behar dugu, rolen banaketa horrek, zalantza izpirik gabe, Estatu ahuldu eta gu indartzen gaituelako.

Prozesu demokratikoak **euskal herritarren hitza eta erabakia izan behar ditu oinarri eta beraz, inongo indarkeriarik edota kanpo injerentzia bidegaberik gabe garatu beharko da**. Zentzu horretan, Euskal herritarren eskubideak galarazi nahi dituzten eragileen ekinbide-tartea murrizteko, funtsezkoa izango da prozesuaren eta marko demokratikoaren aldeko indarrak antolatzea eta aktibatzea. Hori izango da berme nagusia, jakinda Estatuak oztopoak jarriko dituela etenik gabe eta horrelako arazoak ez direla faltako.

Bestalde, **prozesu denez gero, dinamikoa**

eta graduala, bere helburuetara urratsez urrats hurbiltzen dena, behar du.

Prozesu demokratikoak **Estatuaren ordezkari politikoekiko negoziazioak** karakterizazio jakina izatea eskatzen du. **Negoiazioa akordio politiko ezberdinen estekatzean oinarritutako eta indar metaketa, indar harremanen aldaketa eta nazio eraikuntzaren bidez** (Euskal Herriaren artikulaziorako bitartekoak eta dinamikak, euskal identitatearen zabalpenean aurrera urratsak...) **positiboki baldintzatu beharreko borroka esparru gisa ezaugarritu beharra dago.**

Negoiazioak prozesu demokratikoaren tresna eta akuitua behar du. **Baina prozesu demokratikoa ez da negoziatziora mugatzen eta ez du negoziatioarekiko menpekotasunik**, ez erabatekorik bederen. Zentzu horretan, une ezberdinetan negoziatioak trabatuta ere, prozesu demokratikoan urratsak egiten jarraituko genuke, indar metaketan eta nazio eraikuntzan pausu berriak emanez.

Bermeei dagokienez, argi izan beharra dago, prozesuaren garapena nola, negoziatioen bidez erdietsitako akordioak betearazteko eta atzeraezin bilakatzeko berme bakarra indar metaketa, indar harremanen aldaketa eta nazio eraikuntza direla.

5.2. PROZESU DEMOKRTIKOAREN LANABESAK

5.2.1. EZKER ABERTZALEAREN BERREGITURAKETA

Askapen prozesuaren fase honetan ere **Ezker Abertzaleari dagokio motor papera jokatzea. Ezker abertzalea da prozesu demokratikoaren garapenerako eta norabide egokirako berme bakarra.** Garbi izan behar dugu beraz, ezker abertzaleari dagokiola prozesu demokratikoaren lidergoa bai termino politikoetan bai eta termino instituzional eta sozialetan ere.

Bada, **zeregin horri erantzun ahal izateko bere burua berregituratu behar du Ezker Abertzaleak.** Zer esanik ez, horretarako, antolaketa ereduaren gaineko hausnarketa orokorra eta aurre-iritzirik gabea bideratu beharko duela. Edonola ere, berregituraketa horretan, herritar batasunaren berrindartzea

funtsezko zeregina da.

Herritar Batasunak, ezkerreko independentista guztien etxea behar du. Borroka instituzionalean eta masa borrokan eragile nagusia dugu. Gaur egungo fase politikoan akordio politikoa lortzeko Ezker Abertzalearen ordezkari nagusia da eta herri borondatetik jaiotako boterea kudeatzeko bokazioa behar du izan, hauteskunde lehian –bera bakarrik edo beste batzuekin koalizioan– arituko dena. Ezkerreko mugimendu independentistaren proiektu politikoa garatzeko lanabes nagusia dugu Herritar Batasuna. Izan ere, proiektu politiko propioa dugu, askapen prozesuaren fase ezberdinetan zehaztu eta gauzatzen saiatu behar duguna. Jakina, egoera aldatu ahala, Herritar Batasunak legezatzeko helburua izan behar du.

Guztiarekin, **antolakuntza, konpromiso militantea, argitasun ideologiko-politikoa eta eraginkortasuna oinarri izango dituen Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu sendoa behar du nazio estrategia independentistak eta ezkertiarrak.** Zehazki, fase honetan gauzatu beharreko prozesu demokratikoa bururaino eramateko Ezker Abertzale indartsu bat behar da.

Masa borroka eta borroka instituzionala

Estrategia garatu ahala, Ezker Abertzalearen jardueraren ardatz nagusia masa borroka eta borroka instituzionala izango dira, borroka horiek elkarloturik eta elkar osatuz, jakin badakigun arren eremu horietan ere zailtasun handiak izango direla. **Horiek dira**, haatik, **indar metaketa aktiboa** –ez bi zigabea– **lortzeko lanabesak.**

Masa borroka eta borroka instituzionala eraginkor egin ahal izateko beste eremu erabakigarri batzuk ere hartu behar dira kontuan eguneroko jarduera politikoa eta soziala marrazteko garaian:

· **Borroka ideologikoa.** Ezker Abertzalearen egitasmo politikoa garatu ahal izateko ezinbestezkoa da ideien eta edukien eztabaidan murgiltzea. Irizpide atzerakoen kontra; pertsona, jendarte eta herri libreen balioak indartzeko lana azkartu behar du. Indibidualismoa eta norberekeria zabaltzen baldin badira, nekez lortuko dugu borrokaren eskuzabaltasuna eta elkertasunaren izaera kolektiboa oinarri dituen ezkerreko estrategia nazionala garatzea. Ezker Abertzalearentzat,

borroka ideologikoa ez da soilik epe luzerako proiektu politikoaren izaera argitzeko eta zabaltzeko lanabesa; bada, modu berean, gaur egun burutu beharreko jarduera sendotzeko osagaia ere. Izan ere, une honetan garatu beharreko borrokak, bultzatu beharreko herri mobilizazioak eta saiatu beharreko lan instituzionalak ezkerreko independentisten atxikimendu aktiboa ahalbidetuko duen irizpide ideologikoak eta politikoak barnebildu behar dituzte. Gure lana eta borroka irizpide horien gainean errotzeak irekiko digu beste herri sektore batzuekin harremana eta hurbilketa egiteko aukera.

· **Herriarekiko komunikazioa.** Masa komunikazioaren gizartean bizi gara, nahi ala ez. Ezker Abertzalearen jarduera bideratzeko herritarrekin egin beharreko komunikazioa baldintzatzen du horrek, bistan da, eta ezin ahaztu hedabideen eremua botereari lotua dela gaur egun, eta horiek sutuki babesten dituztela Euskal Herriari ezarritako harresiak. Beraz, hedabide nagusiekin izan beharreko harreman zail horretan ere lekua irabazten saiatu behar badugu ere —eta horretan Ezker Abertzaleak jasaten duen bazterketa eta manipulazioa salatu beharko da—, komunikazio beste bide batzuk indartu beharko ditugu. Euskal Herriko komunikazio eremua sortzeko eta gauzatzeko ahaleginak ugaltzen ari diren honetan, hedabide ezberdinek eskaintzen duten aukera aztertu beharko da. Bestalde, bitarteko propioak sortzeko eta garatzeko aukerak ikusi beharko ditugu, horretarako teknologia berriak kontuan hartuta.

· **Oinarri soziala.** Ezkerreko nazio estratejiari eraginkortasuna emateko Ezker Abertzalearen oinarri sozialaren aktibazioa funtsezkoa da. Hori ez da baitezpada beti bere kasa gertatuko, eta indarra egin beharko da. Izan ere, ziklo politiko hau behar bezala burutzeko gure jardueran asmatzea oso garrantzitsua bada ere, ohartu behar gara ildo horren sendotasunaren eta eraginkortasunaren gakoa, hein handi batean, oinarri sozialaren babesean eta bultzadan dagoela. Bilera txikietan marraztutakoa oso txukuna izan arren, ezinbestekoa da ildo politikoa gure oinarri sozialean errotzea; arrazoa, eztabaida eta iritzirik erabilita. Beraz, oinarri sozialarekin harremana estutzeko bide egonkorrak ezarri eta garatu behar ditu Ezker Abertzaleak. Oinarri sozialak, aldi berean, gizarte osora iristea ahalbidetu behar digu.

· **Jendartearen erreferentzia.** Euskal gizar-

teari gehiago erreparatu behar dio Ezker Abertzaleak. Hasteko, abertzale independentisten lidergoa eskuratzeko. Ondotik, abertzaleekin eraikuntza nazionalari herri estrategiaren dimentsioa emateko elkarlanak antolatzen. Azkenik, abertzaleak/ez abertzaleak multzo itxiak apurtzeko saiakera egiteko. Azken hau oso garrantzitsua da herri integrazioa lortzeko, baita eskualde zein herrialde batzuetan Euskal Estatua sortzeko bidean indar harremana aldatzeko. Nola, bestela, lortuko dugu lurralde horietan ezinbesteko dugun herri babesa?

Herri mobilizazioa

Masa borroka herri aktibazioaren erakusgarri izateaz gain, proiektu iraultzaile baten indarraren seinale da. **Estatuaren erasoaldiari aurre egiteko dinamikak bezalaxe, martxan jarri beharreko eta etenik gabe garatu beharreko prozesu demokratikoak ere herri mobilizazioaren beharra izango du.**

Nazio edo herrialde mailako mobilizazioak erreferentzia garrantzitsua dira, jakina, Ezker Abertzalearen jarduerari eta proiektu politikoari hauspoa emateko ezinbesteko lanabesak baititugu. Horien prestaketa eta antolaketa zaindu beharra dago, mobilizazioaren unea ez ezik mobilizazioaren aurreko eta ondorengo lana ere ekimen politikoaren parte direla kontuan hartuta. Are gehiago azken urteetan Ezker Abertzalearen mobilizazio saioak jazarriak izan direla badakusagu; debekuarekin, kasu batzuetan, eta ekimena hedabideetan isilarazteko ahaleginarekin, beste batzuetan.

Hain hitzordu garrantzitsuez gain, **ez dira gutxietsi behar herri edo eskualde mailako mobilizazioak**, gure ekimen sozialari eraginkortasuna ematen baitiote. Egia da nekeak eta arazoak ere ager litezkeela. Horregatik, mobilizazio eta ekimen ereduak aztertu behar ditugu etengabe, molde zehatzak ikusiz, momentua aztertuz, deialdiaren izaera zehaztuz...

Lurralde irizpidearen araberako banaketaz aritu gara aurreko paragrafoetan (nazio edo herriko mobilizazioak). **Beste banaketa bat arazo orokorrari edo arazo sektorialeko lotutako mobilizazioen artekoa da.** Borroka sektorialek ere mobilizazio gaitasuna erakutsi dute azken boladan. Potentzial handikoak dira eta gatazkaren izaera integrala erakusten dute. Arloz arloko lanean ari diren militan-

teen ekarpena handia da, eguneroko lan hori eredu egokia da aginduei jarraituz aktibismo hutsean ez tratatzeko.

Desobedientzia zibila eta intsumisioa ere borrokarako lanabes ditugu. Inposizioari aurre egiteko eta etorkizunerako nahi duguna adierazteko bide dira. Betiere, etsaia higitzea izan behar du helburu eta eraginkorra ere izan behar du. Gure kasuan, bide hori, estrategia orokorrean txertatzeko beste osagai bat da, gurea ez baita –ez orain arte, ez une honetan– kolpe bakar batean egin beharreko matxinada orokorrean (ez armatua, ez zibila) oinarritutako prozesua. Nazio eraikuntza, ezkerreko borroka eta oro har, prozesu demokratikoa bera ditugu sakoneko aldaketa progresiborako lanabesak.

Beraz, **gure helburua borrokaren itzala zabaltea izango da, kaleetara, lantegietara, ikastetxeetara, jende pilaketa handiko lekuetara...** Herri aktibazioa behar dugu. Jakina, beste alor guztietan bezala, honetan ere estrategia orokorraren eta gure helburuen mesedean kokatu behar dugu herri mobilizazioa.

Hauteskundeak eta erakundeak

Hauteskundeak eragin eremu funtsezkoa dira, nahitaez, Euskal Herriaren baldintzak eta kokapen politiko-historikoa (“Lehen Mundua” deritzon horretan gara, Europan, XXI. mendean) kontuan hartuz gero. Hauteskundeen garrantziaz ez dago batere zalantzarik azkeneko urteotan gertatutakoa ikusita: 2003ko udal eta foru hauteskundeetan Ezker Abertzalea xehatzeko ahaleginak porrot egin zuela ikusi genuen, eta hauteskundeetan emandako erantzunak beste edozein gertakarik baino argiago erakutsi zuen errealtate hori; 2004ko Espainiako hauteskunde nagusiek, 11Mko gertaeren ondotik, sekulako ondorioak izan zituzten; urte bereko europar hauteskundeetan Ipar Euskal Herrian ikusi genuen Batasunak jorratutako bidea egokia zela, HZ abertzaletasunaren erreferentzia bihurtu baitzen eta ABk Berdeekin egindako apustuak porrot egin baitzuen; 2005eko hauteskunde autonomikoetan, EHAKren boz “legala” aprobeztatuz, gorako joera hasi zen; 2007ko udal eta foru hauteskundeetan negoziazio prozesuaren bi eragileren erreferentzia indartu zen: Ezker Abertzalea eta PSOE; Ezker Abertzaleak erantzun ona eman zuen 2008ko hauteskundeetan –bai Hego Euskal Herrian, bai Ipar Euskal Herrian–; Eta iragan

berri diren EAEko eta Europako hauteskundeek txosten honetan hizpide ditugun estrategia eraginkorra eta apustua ahalbideratze aldera oinarri txukunak finkatu dituzte. **Ezker Abertzalearen ibilbide historikoari eta jarduera zein kultura politikoari jarraituta, hauteskundeak borroka eremu nagusietako bat ditugu,** indarra erakusteko eremu nagusietako bat, hain zuzen ere. Are gehiago prozesu demokratikoa azken bururaino eramateko polo indartsu bat sortu nahi baldin badugu. Bestela, bazterketa eta txikiagotzea izango litzateke gure etorkizun beltza.

Erakundeak gure jarduera politikorako tokiak dira. Ezin dugu ahortzi, ordea, gaur egun azken 30 urteotan izandako egoerarik ez demokratikoena bizi dugula, bazterketa kasik azken muturreraino eraman baitute eta azken bururaino emateko asmoa ere badutela erakutsi baitute. Erantzun ildoari emandako atalean ikusiko dugunez, horrek salaketa iraunkorra merezi du.

Edonola ere, **azken hogeita hamar urteotan egoera arras aldatu dela nabaria da. Orain dela urte batzuk, Ezker Abertzaleak zenbait erakundeetan parte-hartzeak marko juridiko-politikoa egonkortu zezakeela uste genuen, horiek higitzeko garaia zelako; gaur egun, berriz, nazio eraikuntzan oinarritutako trantsizio politikoa burutu nahi dugula, Ezker Abertzalea erakundeetan izateak asaldatzen ditu bazterrak.** Urte hauetan guztietan deslegitimatatu egin ditugu eta halaxe egingo dugu aurrerantzean zinezko demokrazia ezartzen ez den heinean.

Atzera begira, badugu ere beste aipagai kritiko bat; izan ere, PNVri erakundeen ohiko kudeaketan nahi bezala aritzeko eman ditugun tarteak, nahigabe bada ere, aurrera begirako egiturazko arazo bilakatu da. Egoera horri buelta emateko ez dira oso lagungarriak “anti-sistema” deritzan jarrerak, ustez jokabide iraultzaile zuzenenak direlakoan. Bozak eta kudeaketa eremuak lortu behar ditugu gure estrategia bururaino eramateko.

Etorkizunari **begira, prozesu demokratikoa bideratzerik lortuko bagenu, gaur egungo markoetako erakundeak ere eragin gune moduan ulertu beharko genituzke,** hortik ere nazio eraikuntza, alde batetik, eta akordio politikoaren norabidea, bestetik, ahal bezainbeste baldintzatzeko. Baita gure proiektu politikoa bera indartzeko ere.

Harago, negoziazio prozesutik sortuko diren erakunde edo egitura berrietan eragin handia izan beharko du Ezker Abertzaleak, horietan autodeterminazio eskubidea gauza bidean jarriko baita, eskubidea erabiltzera zer baldintzetan iritsiko garen hor egindako lanaren araberakoa ere izango baita.

Aldi berean, **nazio egituraketa indartuko duen eta prozesu demokratikoaren norabide nazionala sendo dezaketen instituzionalizazio urratsek gure jarduera politikoan txertaturik egon behar dute.** Udalbiltza erakundearen berraktibazio izango da urrats garrantzitsu bat. Ondo aztertu behar da aktibazio hori noiz eta nola egin, merezi duen transzendentzia izan dezan. Ez ditzagun kimuak alferrik erabili.

5.2.2. ALIANTZA POLITIKA: INDAR INDEPENDENTISTAK BILDU

Ezker Abertzaleak herri honentzako burujabetza nahi duten sektoreak bildu eta norabide independentistan lerrokatzeko estrategia zehaztu behar du. Barneratu behar dugu fase honetan beharrezkoak diren gehiengo independentistak eta aurrerakoiak lortzeko jendarte klase ezberdinetako indarrak bildu behar ditugula. **Aliantza askotarikoa behar dugu fase honetan;** bestela, dogmak itsuturik, ez baitugu inoiz gehiengo independentistarik gauzatuko eta, horrenbestez, proiektu independentistaren kontra egingo baitugu.

Euskal Herrian aldaketa politikoa eta soziala zinez aldarrikatzen duen gehiengo prozesuaren eragile moduan kokatu beharra dago. Egun dagoen indar sakabaketa gainditu eta indar metaketa egitea izango du betebeharrak, aldaketa politiko eta sozialaren gauzapena eta mamia positiboki baldintzatzeko eta Euskal Herriko mapa politikoan indar harremanak aldatzeko.

Beraz, indar metaketa eta prozesu demokratikoa elkarloturik daude. Izan ere, **prozesu demokratikoa burura eramateko berma nagusia herrian aurreratu eta aktibatzea lortzen duguna izango da.** Fase politiko honetako bataila nagusietako bat aldaketa politikoaren noranzkoa eta edukia zein izan behar den zehaztea izango da. Horrela bada, Euskal Herriaren zatiketa eta ukazioa iraurarazi eta Euskal Herriaren independentzia ahalezko egingen dituen marko demokratikora eramán nahi dugunon artean kokarazi behar

dugu bataila hori. Horretan, independentziaren bidean Euskal Herrian aldaketa politiko eta demokratikoa egitearen alde dagoen gehiengo soziala artikulatu behar dugu.

Aliantza politika horren baitan, biziki garrantzitsua izango da elkarlan sindikalak perfil estrategikoa izatea, bai eta esparru independentista horren garapenari ekarpen propioa egitea ere.

Indar metaketa, aipatu bezala, **Euskal Herri osoan egin beharreko lana da, eragin-guñeen ezaugarrien arabera eta, aldi berean, ikuspuntu nazionala indartzeko norabideaz.** Ipar Euskal Herriari dagokionez, gaur gaurkoz indar harreman nahikorik ez da egituratu benetako aldaketarik bideratzeko, eta ez dago zalantzarik “Balladur erreformak”, adibidez, ez duela estatus aldaketarik ekarriko guretzat. “Statu-quo”-ari eutsiko dio Estatuak. Blokeo egoera gainditze bidean jartzeko, abertzale, ezkertiar eta aurrerazaleen elkarlana gako nagusi izango da eta horretan, beste behin ere, Ezker Abertzaleari motor edo dinamizatzaile rola dagokio. Hurrengo urteetan, abertzale eremuan eragitetik jendartearen eragitera pasa behar dugu. Horretarako, garrantzi handia duten zenbait gai sektorialean lanean segitu eta sakondu beharko dugu.

5.2.3. ERANTZUN DINAMIKA: HERRI HARRESIA ERAIKI

Espainiako Estatuaren erasoaldia oso bortitza ez ezik sakon-sakonekoa ere bada, eta Frantziako Estatuaren ere gero eta urrats larriagoak egiten ari da Ezker Abertzalea zokoratzen. Errealitate horrek erantzun sendoa behar du, lehenik eta behin hainbeste gehiegikeriari eta basakeriari aurre egiteko. Beste ondorio batzuk ere bilatu behar ditugu indartu beharreko borroka horretan: gaur egungo legeriaren deslegitimazioa gero eta gehiago areagotzea eta, bide batez, aldaketaren eta egoera demokratikoaren beharra indartzea; ildo errepresiboaren egitasmo nagusia proiektu independentista galaraztea dela zabal-tzea.

Salbuespen egoeraren kontrako borrokan, arreta berezia merezi du Ezker Abertzalearen jarduera politikoari eta sozialari jarri dioten debekuak; askatasun demokratikoaren kontrako sekulako eraso izateaz gain, hortxe baitago estrategia independentistaren bizkarrezurra mozteko ahaleginaren gako nagusia. Horretan, erantzuteko bi bide osagarri

daude: lehena, lege kanporatzearen salaketa bera; bigarrena, debekuen gaintik gure proiektu politikoaren aldeko lanari eustea. **Errepresioaren zurrunbiloak ezin gaitzake itsutu eta egin beharreko apustu politiko-tik urrundu.** Etsaiari mesede egitea litzateke hori. **Biak ala biak egin behar dira: apustu politikoari jarraitu eta Ezker Abertzalearen kultura eta balore kolektiboa den borroka egiteko eta erantzuteko prestutasunari eutsi.**

Errealitateari so egiten ere jakin behar dugu. Ito nahi gaituzte eta, gainera, itota sentiarazi nahi gaituzte, ezin litekeela ezer egin pentsa dezagun. Borroka psikologikoa garrantzi handiko faktorea da. **Egia da estatuen makina-ria martxan jartzen denean, une horretan geldiaraztea kasik ezinezkoa dela, baina horrek ez du esan nahi erantzun politikoak eta mobilizazioek ez dutenik ezertarako balio.** Aitzitik, goiz ala berandu, **apustu erre-presiboaren porrota lortuko dugu horrela, lehenago ere egin dugun moduan.** Nekez geldituko dugu martxan dagoen operazio bat, baina erantzun egokia emanda operazio hori agindu dutenen apustua higatu ahal izango dugu eta, modu berean, aterabide demokratikoa defendatzen dugunon jarrera indartuko dugu.

